

Elkarrizketa
politikoak

BERRIZ



"Laritz inguruan pasarela bat eraikitzea eskatu diogu Aldundiari; inguru horretan radarrak ipintzea da gure asmoa"

Berriz • Orlan Isoird alkateak bere laugarren legegintzaldiari ekin dio Berrizko Udala-
ren gidaritzan. HAPOa, irisgarritasun proiektuak, belodromoa zein bide segurtasuna
izan ditu berbagai ANBOTOren elkarrizketan. • **2-3**



Maitasun eta mimo handiz prestaturiko omenaldia

Zapatuan Xabier Amuriza omenduko dute Etxano sorterrian eta Zelaietako frontoian. Etxanoko 60 bat bizilagunek Amurizaren bi-
zitza errecreatuko dute antzerki ibiltari baten bitartez. Gauean, Euskal Herriko musikari eta
artista ugariaren laguntzagaz osaturiko ikuski-
zuna egingo dute Zelaietako frontoian. • **5**



Ekoizle eta artisauen azoka egingo dute domekan Zelaietan

Abadiño • Hileko bigarren dome-
ketan ekoizle eta artisauen azoka
egiten hasiko dira Abadiñoako Ze-
laietan, Txanporta plazan. Dome-
kan, azaroak 12, egingo dute lehe-
nengo azoka. • **6**

Zornotzak Binakako Txapelketa Nagusiko lau jaialdi hartuko ditu

Zornotza • Abenduaren 1ean, urtarrilaren 5ean, otsailaren 2an
eta otsailaren 23an dira jaialdiak. Sarrerak dagoeneko eskuraga-
rri daudela aurreratu dute antolatzaileek. • **27**





**Orlan
Isoird Refoyo**
Berrizko alkatea
BERRIZ | 1975

“Laritz inguruan pasarela bat eraikitzea eta inguru horretan radarrak ipintzea eskatu diogu Aldundiari”

HAPOaren berrikuspenera, irisgarritasun proiektuak eta Laritz auzoko pasarela dira Orlan Isoird alkatearen proiektuetariko batzuk legegintzaldi honetara begira

BERRIZ • JONE GUENETXEA

Orlan Isoirdek bere laugarren legegintzaldia hasi du Berrizko alkate karguan. Alderdi sozialistagaz gobernu osatuta, 2024ko aurrekontuak lantzeari ekin diote. Berrizburu inguruan aisialdi eta kirol esparruan martxan ipiniriko egitasmoa "osatuagoa" litzateke belodromoa estaliz gero. Oraingoz, Mankomunitatea proiektua erredaktatzen dabil. Isoirden ustez, belodromoa estaltzeak onura eragingo lioke "Berrizi, eskualdeari eta baita Euskal Herri osoari ere".

Laugarren legegintzaldia hasi duzu alkate legez. Zelan baloratzen dituzte hauteskundeetako emaitzak eta zelan ekin diozu legegintzaldi berriari?

Legegintzaldiari lotuta, laugarren legegintzaldia da alkate karguan, bai. Alde horretatik, gogotsu nago. Mila dira herriaren aldeko ekimenak, eta prest nago erronka horiei aurre egiteko. Taldean aurrera eramateko proiektuak dira, herri-tarrekina batera. Alde horretatik, pozik nago. Emaitzei dagokienez, lau legegintzaldi hauetan emaitza desberdinak izan ditugu. Lehenengoan ere minorian egon ginen. Hurrengo biak gehiago osoz landu genituen. Oraingoz ere minorian, baina alderdi sozialistagaz osatu dugu gobernu taldea.

Zeintzuk dira legegintzaldi honetako erronkak?

HAPOa tartean dugu. Herria garatzen joan da eta horri ekiteko

momentua dela uste dugu. HAPOa partaidetza bidez jorratu behar denez, horixe izango da legegintzaldiko lanik mardulena eta sakonena. Irisgarritasun proiektuak ere tarteko izango dira. 70eko hamarkadako urbanizazioak ditugu. Berriz ezagutzen dugunok badakigu zelako erripatsua den. Badaude auzo batzuk irisgarritasun arazoekin, eta eremu horiek irisgarri bihurtu behar dira. Inbertsio garrantzitsuak egin beharko dira horretarako. Bestalde, badaude beste proiektu batzuk aisialdiari lotuta. Berrizburuko inguruan hainbat proiektu landu dugu urte hauetan. Ur parkea lizitatu da eta obrak martxan daude. Umeentzako parkea faltako litzateke, eta kultur ekimenetarako anfiteatro naturalizatu bat. Hori guzti hori eginda eta komun publiko automatizatu egokitzen denean, eremu hori osatuta geratuko da. Era berean, pandemia-gaz hainbat proiektu geldirik egon da. Atzean geratu diren egitasmoak martxan ipiniko ditugu orain. Auzo buzoiak berrizteko proiektua ere ipiniko dugu martxan. Urte amaieraren aurretik lizitatuko da.

Zelan daude 2024ra begirako aurrekontuak?

Erronka nagusietariko batzuk egingo ditugu. Irisgarritasunari bultzada bat emango diogu. Auzoetako bide batzuk txukundu barik daude eta lehentasuna eman behar diegu,

baita hurrengo urteetarako planifikazioa egin ere. Badaude obrak ez diren proiektuak, mugikortasun plana esate baterako. Hauek ere HAPOagaz lotuta egongo dira. Orainxe hasi gara aurrekontuak lantzen, hurrengo batzorderako sarrera eta gastuen lehenengo kontuak ematen, eta ea prest ditugun urte amaierarako.

Memoria historikoaren inguruko lanketa udalaren esku geratu da. Zelako prozesua izan da?

Berriz 1936 kultur elkarteak ibilbide luzea egin du. Lan itzela egin du urte hauetan memoria azaleratuta. Ibilbide honen ondoren, udalak erreleboa hartu behar lukeela eskatu zen, beti ere herrira zabalduz. Horrela, deialdia egin genuen, sortuko zen talde motorean parte hartzeko. Gainera, izena ere aldatu zaio. Giza eskubideen inguruko taldea da. Taldeak guda zibilaren inguruko gaiak lantzen jarraitzen du, eta irailaren 11 oroitzen. Baina giza eskubideen esparru zabalago hori ere lantzen du. Taldea martxan da, eta aurtengo irailaren 11 eta horren inguruko ekimenak talde horretatik irten dira.

Zertan da belodromoaren inguruko proiektua? Mankomunitatea eta Bizkaiko Foru Aldundia tartean daude.

Guretzat sekulako proiektua da. Ez bakarrik Berrizko herriarentzat, eskualde osoarentzat baino, eta baita Euskal Herriarentzat ere.

Izan ere, Berriz erkidegoaren erdi inguruan dago, logistikoki oso leku estrategikoan dago. Planteatzen den belodromo proiektua ezohikoa litzateke. Zurezko tarimadun belodromoia izatea planteatu da. Horrek belodromo estaltzea dakar, eta hainbat aukera emango luke arlo profesionalari begira, UCI probak ekartzeko eta abar. Horrek arlo ekonomikoan bere onura eragingo dio eskualdeari. Berriz eta eskualdea mapan kokatzea ekarriko du. Horregaitik, hasieratik adituekin lantzen gabiltza proiektua.

Zein fasetan dago belodromoaren proiektua?

Badabilta garatzen, eta 300.000 eurotik gora ipini ziren horretarako. Proiektu hori amaitzen denean, diru-laguntzak medio, eta Mankomunitateak bere plan estrategikoan txertatu zuen dirua kontuan izanda, ikusi egin beharko dugu aurrera egiten duen. Gure partetik poz handiz hartuko genuke aurrera egingo balu. Berrizburu inguruan txirrindularitzari loturiko beste azpiegitura batzuk ditugunez, sinergiak sortuko lirateke. Iñaki Lejarretaren zirkuitua, BTTkoa eta ziklo-krosekoa iraunkorrak dira. Pump Track-a ere hortxe dago. Skate pista berritua txirrindularitzako beste diziplina batzuk lantzeko baliagarria da. Beraz, txirrindularitzak oso esparru potentia dauka Berrizen.

Zertan dira Oizeko aurkikuntza geologikoak? Mallabiagaz batera ibilbide bat sortu zen.

Lehenengo fasea iaz hasi genuen, udalerrri biok batuta. Aurkikuntza garrantzitsuak azaleratu ziren eta bigarren fase bati ekitea zen ideia. Horretan gabiltza aurten. Prospekzioak amaituta dituzte eta txosten teknikoaren zain gaude. Horren arabera baloratuko dute emaitzek zer esaten duten. Proiektu hori estazio megalitikoaren ibilbide batez lotuta dago. Hori ere proiektuaren barruan dago eta hori ere gauzatu litzateke, Oiz inguruan ditugun beste baliabide batzuekin batera. Aurten hasiko dira Oizko hezeguneak baloratzeko lanak. Hezegune horietan, ondare naturalen arloan oso elementu garrantzitsuak ditugu eta horiek ere estazio megalitiko ibilbideagaz uztartuko dira.

Urte askoan Mankomunitatetik kanpora egon eta gero, berriro kide egitea erabaki zenuten. Zein onura eragin dio horrek Berrizi?

Berriz Mankomunitatetik irten eta gero, urte batzuetara, zerbitzu txiki batzuetara atxikitu zen. 2007an Agenda21eko zerbitzuetan geunden. Azkenengo 10 urteotan beste zerbitzu batzuetan, euskara arloan, OMIC kontsumitzaile bulegoan ere bai. Azken zerbitzu honen kasuan, herritarrek Bilboko kontsumitzaileen bulegora joan behar izaten zuten artatuak izan zitezten, eta, Du-

rangon bulegoa izanda, horrek ez zuen zentzu handirik. Gaur egun ego estatistikek diote berriztarrek erabiltzen dutela zerbitzu hori, eta zerbitzu garrantzitsua dela. Zerbitzurik handienetara atxikitzea eta kide oso izatea falta zitzaigun. 2021ean, ongizate eta kirol zerbitzuekin bat egiteko erabakia hartu genuen. Kirol zerbitzuetan bada-kigu belodromoa tarteko dagoela. Belodromoa Berrizen egonda eta gu Mankomunitatean ez egoteak ez zuen zentzu handirik. Atletismo pista eta trinketa ere hortxe daude. Gauzak horrela, arlo horretan ere prest gaude elkarlanean aritzeko. Gizarte zerbitzuei dagokienez, gauza batzuetan hoberantz egin dugu zerbitzu batzuetan, Mankomunitatea hobeto dagoelako, eta beste batzuetan beharbada baxuago. Hori orekatzen joatea da orain kontua. Gainera, gizarte zerbitzuen kartera hor dago, eta hori bete egin behar da; batek zein besteak gobernatu, lan ildo horiek landu egin behar dira. Proiektu batzuk areaka landu behar dira eta hori garrantzitsua da. Legearentzako *area* guk eskualde esaten dioguna da. Eta *comarca* esanda, Durangaldeari eta Lea-Artibairi egiten zaie erreferentzia. Hor badago gainerako udalekin elkarlanean aritzeko esparru bat. Uste dut solidarioak izan behar dugula eta Mankomunitatearen

funtzionamendua horretan islatzen dela. Horixe zen Mankomunitatean sartzeko helburuetariko bat, Berriz ere eskualdeko parte izatea eta solidaritate horren parte izatea.

Berrizek, Mallabiagaz batera, Mar-kinara doan bidean abiadura motel-tzeko neurriak eskatu ditu hainbat bider Bizkaiko Foru Aldundian. Mallabian radarrak ipintzeak izan du eraginik?

Mallabiak eta Berrizek elkarregaz egin genuen eskaera Bizkaiko Foru Aldundian, baina, egia esan, istri-purik gehien Mallabiko partean gertatu dira. Mallabiko zatian radarrak ipini ziren eta horri jarraipena ematea da gure ideia. Horrez gainera, Laritz inguruan pasarela bat eraikitzea eskatu diogu Aldundiari. Larizko bidegurutzea Andikonako bidegurutzeagaz lotzen duen lekuan. Hori ere legealdi honetarako proiektuetariko bat da. Horrela, eremu horretan oinezan zein bizikletan doazenak San Lorentzorik Andikonarako bidean seguruago pasatzea ahalbidetuko genuke.

Radarrak Berrizen ere ipintzea gura duzue?

Bai, batez ere pasarelaren inguru horretan. Jende askok Andikonako buelta egiten du, eta bertan bizi direnentzat ere mesedegarria litzateke.



Berrizek duen biztanle kopurua kontuan hartuta, oso kultur eskaintza zabala dauka.

Ahalegin handia egiten dugu kultur ondarea berreskuratzen. Euskarari loturiko apustu bat da. Kultur eskaintzari erreparatzen badiozu, ume, familia eta gurasoentzat euskarazko eskaintza oso zabala dela ikusiko duzu. Ekimen asko euskara hutsean da. Euskal Herrian antzerkia-

ren munduan dabilzanek esan zuten 20.000 biztanleko herri baten pareko programazioa dugula. Kirol arloan ere gorai-patze-koak dira gure azpiegiturak.

Zein egoera bizi duzue etxebizitza arloan?

Erronka bat dugu. Etxebizitza proiektu bat lotu beharko litzateke gazteak herrian geratu daitezen. Hor badago promozio pribatu bat oraindino jorratu barik.

Promotoreen araberako proiektua da, Forjas de Berriz egon zen inguruan. Ea hori ere apur bat bultzatu daitekeen eta horrek bidea ematen digun etxebizitza berriak planteatu daitezen. HAP-Oak ere landuko du esparru hori, baina, bien bitartean, hor daude esku artean ditugun partzelak. Gazteentzako alokairua sustatzea ere garrantzitsua da, herrian geratu daitezen.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

Inteligentzia artifizialak ingurugiro jasangarriagoaren alde egin dezakeena aztergai, Durangoko jardunaldian

Landako Guneak harturiko Global Innovation Day jardunaldia hainbat enpresak martxan jarriko proiektuek eta arloko adituen berbaldiek osatu zuten, joan zen eguaztenean



Innobasqueko, Jaurilaritzako eta Durangoko Udaleko ordezkariak jardunaldiaren amaieran.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Inteligentzia artifizialak geroago eta pisu handiagoa du enpresen garapenean eta ekoizpen moduetan. Euren jarduna eraginkorrago bihurtzeko, halaber, jasangarritasunaren bidean urratsak ematen ere lagundu dezake. Hari bi horiek lotu zituen Innobasquek, Berrikuntzaren Euskal Agentziak, eguaztenean Durangon egin zen Global Innovation Day jardunaldian.

Euskal enpresen hainbat kasu praktiko aurkeztu zen. Alde batetik, adimen artifiziala hainbat esparrutan aplikatu duten enpresen kasuak: Energiaren esparruan (Aratubo), konputazio kuantikoan (Ibermática, anAyesacompany) eta medikuntzan (Ulma Medical Technologies); eta, bestetik, berrikuntza jasangarria landu duten beste hiru: ekodiseinua (Emica Bombas),

energia-eraginkortasuna (Fagor Arrasate) eta birgaitzea (Construcciones Fhimasa).

Eguneko beste ekitaldi nagusietariko bat Mar Mendiberen eta Alex Rayonen arteko solasaldia izan zen.

Adimen artifiziala hainbat esparrutan aplikatu duten sei enpresen kasuak aurkeztu zituzten

Eguneko beste ekitaldi nagusi bat Mar Mendiberen eta Alex Rayonen arteko solasaldia izan zen

dia izan zen. Mendibe Biobizkaia Osasun Ikerkuntzako zuzendari zientifikoa, eta Rayón adimen

artifizialean aditua eta Brain and Code enpresaren sortzaileetarikoa bat. Haien ideia trukeak ikuspegi argigarria eskaini zuen adimen artifizialaren, neuroteknologiaren eta osasun arloaren arteko loturari buruz. Aditu bien esanetan, lotura hori goitik behera eraldatzen dabil osasun-arretan eta ikerkuntza medikuan. Solasaldian, hainbat gai izan zuten hizpide: besteak beste, ikaste automatikoa ez erabiltzeak sortzen duen ziurgabetasuna, eta ikaste automatikoa lan egiteko moduan ekarriko duen disrupzioa.

Iñigo Urkullu lehendakariak itxi zuen Global Innovation Day jardunaldia eta, ondoren, berritasun lez, hainbat bilera izan zen, adimen artifiziala hornitzen duten euskal enpresen eta teknologia horren bitartez proiektuak gauzatu dituzten enpresen artean.

Durangoko Udalak 220.318 euro ipiniko ditu enplegua sustatzeko laguntzetarako

Eskaerak otsailaren 15a baino lehenago egin behar dira



Andra Mari kalea.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Enpresek zabalik dute Lanbiden izena emanda dauden durangarrak kontratatu izanagaitiko laguntzak udaletxean eskatzeko aukera. 220.318 euroko aurrekontuagaz, udalak diruz lagunduko ditu kontratu mugagabeak edo artisten eta ikuskizun publikoetako teknikarien eta la-

guntzaileen kontratazioak, azken hauek hiru hilabete baino gehiagoko iraupena badaukate. Enpresa interesdunek otsailaren 15era arteko epea izango dute proposamenak Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkezteko. Udalaren web atarian informazio gehiago dago eskuragarri.

Ibilaldi osasungarrien programa martxan da berriro

5 kilometroko ibilbideak egingo dituzte eguaztenero

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko ibilaldi osasungarrien programa martxan da berriro ere eta maiatzaren 29ra arte iraungo du. Adinekoek 5 bat kilometroko ibilbideak egiteko aukera izango dute eguaztenero-eguaztenero.

Saio guztiak Kurutziazako iturritik hasiko dira, 09:30ean. Izen emateak Adinekoen zentroan (944 657 451) edo adinteki@durango.eus helbidean egin behar dira. Egun euritsuetan jarduera alternatiboak egingo dituzte.



Ibilaldi guztiak Kurutziazako iturritik hasiko dira.

anboto

**Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa**

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

**2023ko azaroaren 10a
22. urtea - 956. alea**

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Xabier Amuriza pertsonaiaren atzean dimentsio humano handiko pertsona dago”

Zapatuan Xabier Amuriza omenduko dute Etxano jaioterrian. Herritarrak auzolanean antolatu dira herrikidea omentzeko

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Beti da berezia omenaldi batek sortzen duen hunkidura. Baina baliteke zapatuan Zornotzan sentituko denak ohikoa baino hunkidura handiagoa sorraraztea. Eta ez da harritzekoa, egunero ez delako euskal kulturari ekarpen eztabaida ezina egin dion herrikide maitatu bat omentzeko aukera suertatzen. Zornotzarrek, etxanotarrek, argi dute. Xabier Amurizak merezi du hainbeste maitasun. Hori dela eta, Etxanoko Euskal Herriko Doinuen aurtengo egitarauan, auzolanean antolaturiko omenaldia egingo diote Amuriza herrikideari. Eskurik esku, bakoitzak bere aletxo ipinita. Izan ibilaldi antzeztuan antzezte lanetan ibilita, izan koordinazio lanetan batetik bestera ibilita, ala izan gauean egingo duten ikuskizuna gidatuta.

Olaia Hormaetxe Kobeaga etxanotarra eta Asier Bilbao Rui Wamba zornotzarra dira ekitaldia antolatzen dabilen kideetarikoz batzuk. Halantzik azaldu dute omenaldia- ren sortze prozesua: “Zornotzako euskalgintzan orokorrean, eta Andra Mari ikastolaren bueltako euskalgintzan, hainbat pertsona batzen gara. Orain dela zortzi hilabete, taldeko bati Xabier Amuriza

omentzeko ideia etorri zitzaion burura. Arlo asko jorratu dituen pertsona da, eta, gure iritziz, ez du sekula omenaldi edo aitortza berezirik jaso. Ikusten genuen zerbait egin behar geniola, batez ere herritik bertatik sorturiko zerbait jaso behar zuela. Etxanoko auzo elkarteko kideek proposamen horri heldu, eta omenaldia Euskal Herriko Doinuen egitarauan egitea proposatu zuten. Eta halantzik, hasieran xumea izango zen aitortza biderkatzea lortu dute”, azaldu du Bilbao. Olaia Hormaetxe ere iritzi berekoa da, eta azpimarratu egin du omenaldia prestatzeko lanketan Etxanoko eta inguruetakoz bizilagunek izan duten prestutasuna. “Amurizaren bizitza errecreatuko duen ibilbidea herriko jendeak antzeztuko du. Etxanoko eta inguruko 60 bat bizilagun gabiltza horretan. Jendeak ikusi du merezi duela, egin behar dela. Zerbait zoragarria izan da. Jendearen atea jo dugunean denek esan digute baietz, omenaldian parte hartu gura dutela. Inork ere ez digu ezezik eman. Antzezlana Larraitx Garcia aktore zornotzarra dabil gidatzen”, azaldu du Hormaetxek. Antzezleen artean, hona izen batzuk: Epaltza auzoko Jesus Mari



Pablo Monasterio, Andoni Larrea, Jesus Mari Etxebarria, Asier Bilbao, Olaia Hormaetxe, Juan Luis Hormaetxe eta Justo Alberdi.

Etxebarriak bere aita propioaren rola jokatu du. Oromiñoko Justo Alberdik Lucioen papera jokatu du, Xabier Amurizaren aitaren papera, eta Kristina Mardarasek narratzaile lanak egingo ditu antzezlanean zehar. Etxanoko Juan Luis Hormaetxek beharrezko laguntza eskainiko du atrezzo edo objektuak eskuragarri ipintzeko.

Omenaldia egiteko arrazoiak ere sobera daudela erakutsi dute zornotzarrek: “Amurizak eginiko ekarpen mota bat begi bistakoa da. Horien artean dago bertso eskoletako lana, doinu berriak sortu izana, txapelketetako ibilbidea, eta

literaturan, herrigintzan eta politikan eginiko ekarpena. Baina gero badago beste alde bat, beharbada hainbeste igartzen ez dena, eta guk jendeagaz batuta ikusi duguna. Amurizak dimentsio humano handia dauka. Batzuetan pertsonaiaren izen larriekin, maiuskulen, geratzen zara, baina pertsonaia horren atzean pertsona dago. Eta Amuriza, emozionalki, asko sartzen da herritarren barruan”, azaldu du Bilbao.

Ekitaldi nagusiak

Ibilbide antzeztua egiteko, Xabier Amurizak berak idatzirik *Bizitza*

bat oroimenean liburua izango dute oinarri. 9:30ean hasita, Etxanoko eta inguruetakoz bizilagunek Amurizaren beraren bi- zipenak antzeztuko dituzte Bizkargi, Autzagane eta Etxanoko eliza zeharkatuta. Eta 21:30etan ikuskizuna egingo dute, Zelaietako frontoian. Omenaldi horretan euskal kulturgintzako hainbat pertsona ezagunek parte hartuko dute. Anje Duhalde, Jon Maia, Asisko Urmeneta, Mikel Urdangarin, Tapia eta Leturia, Natxo De Felipe, Agus Barandiaran, Josu Zabala, Iban Ibarretxe eta herriko musikariak egongo dira.

Milikuan esleitu barik geratu zen lursaila berriro enkantera aterako dute Garain

GARAI • JONE GUENETXEA

Garaiko Udalak lursail bi enkantera atera zituen 2022an Milikua inguruan, bertan eraiki ahal izateko. Lehenengo lursaila esleitu egin zuten. Bigarrenaren prozesuan, ostera, hainbat pertsona aurkeztu zen arren, interes tipoen igoraren eraginez interesdunek atzera egin zutela azaldu du Erramun Osa alkateak. Legegintzaldi honetan zehar berriro enkantera ateratzeko asmoa du udalak.

Maria Esther Simonek irabazi du Iurretako sanmigeletako argazki rally lehiaketa

Lehiaketara aurkezturiko 12 argazkiren artean aukeratu dute irabazlea; 50 euro irabazi ditu



Maria Esther Simon saria jasotzen, Zorione Fundazuri kultur zinegotziaren eskutik.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Maria Esther Simon iurretarrak aurkezturiko argazkiak irabazi du aurtengo San Migel jaietako argazki rallya. Parte hartzaileek Iurretako jaiak izan dute gaia argazkia ateratzeko, eta, guztira, 12 argazki aurkeztu zituzten. Guztien artean Simonena izan da onena, epaimahaiaren iritziz. Irabazleak 50 euroko saria lortu du. Aita San Migel plazan atera zuen argazkia, su artifizialak bota zituzten momentuan, hain zuzen ere.

Joan zen azaroaren 3an eman zioten saria argazki rallyko irabazleari, Musikaldia kultur egitaraua hasi zen egunean bertan.

Parte hartzaileekin eskertuta

Iurretako Udaleko kultur zinegotzia den Zorione Fundazuriren eskutik hartu zuen saria iurretarrak, Musikaldia hasi zuen Itziar Yague musikari gasteiztarren kontzertua ikustera joaniko herritarren aurrean. Irabazlea zoriondu zuen Fundazurik, eta lehiaketan parte hartu duten guztiei eskerrak emateko ere aprobetxatu zuen. Parte hartzaile bakoitzak lehiaketara gehienez argazki bi aurkezteko aukera izan du. Argazki guztiek herriko jaiekin loturikoak izan behar zuten.

“Domeketan Zelaietan ez dago ogia non erosi; azoka herria pizteko modu bat izan daiteke”



Itziar Larrinaga eta Aitor Urien.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko ekoizle eta artisau batzuek bultzatuta, azoka egingo dute domekan Abadiñon, Zelaietan. Hileko bigarren domeka guztietan azoka egitea da euren asmoa. 10:30etik 14:30era egongo dira, Txanportan.

Azoka bat antolatu duzue domeka honetarako, eta, gainera, iraunkorra izan da, egun gehiagotan egingo duzue. Zelan bururatu zitzaizuen ideia?

Aitor Urien: Apatan bururatu zitzaizgun, hango azoka batean geundela. Arrietan (Bizkaia) azoka bat egiten dute hileko lehenengo domekan, eta Zelaietarako ere horrelako azoka bat aproposa izan zitekeela iruditu zitzaizgun. Zelaie-

tan badago beharizan bat eta uste dugu herriak beste bultzada bat izango duela horrela.

Itziar Larrinaga: Gainera, ekoizleek hiler plaza bat izango dute horrela, plaza hori eskainiko diegu.

A.U.: Ekoizleei eta herritarrei. Esaterako, domeketan Zelaietan ez daukazu ogia non erosi. Azoka herria pizteko modu bat izan daiteke.

I.L.: Ikusten genuen azken hileetan, azken urteetan, auzoak giroa galdu duela, jende gutxiago dabilena, eta horrelako ekimen batek jendea erakarri lezakeela. Auzoa biziberritzeko azoka bat izango da.

Azokak ekoizleak eta artisauak batu-ko ditu.

I.L.: Ekoizleentzako azoka bat izatea da ideia. Eta azokak ekoizle finko batzuk izango ditu. Baina, eurak bakarrik egon beharrean, artisau batzuk eta beste ekoizle batzuk ere gonbidatuko ditugu, azoka gehiago janzteko. Eta giroa gehiago animatzeko, jakina.

A.U.: Hasieran, ekoizleak Durangaldekoak izango dira, eta ondo doala ikusten badugu, gonbidatuak urrunagotik ere ekartzea baloratuko dugu.

Lehenengo azoka domeka honetan izango da. Zelan zaudete?

A.U.: Ilusio handiagaz. Beldur apur bat diot eguraldiari. Eguraldi txarra eginez gero, probalekuan egin beharko dugu eta. Baina hori ez dago gure esku.

I.L.: Ilusionatuta gaude; azken batean, gogotsu hartu dugun kontu bat da eta gogoia dugu ikusteko ea zelako harrera duen.

Azokak hileko bigarren domeketan izango dira, Zelaietan.

A.U.: San Blas eguna kenduta, Zelaietan ez da horrelako ezer egiten, eta Zelaietan falta hori igaritzen dugu. Zelaietak azoka baten beharra du. Matienan, esaterako, merkatua dago eguaztenero. Azoka arrakastatsua izatea litzateke onena, eta hileko bigarren domeketan azoka Zelaietan egitea, eta beste domekaren batean Matienan. Baina, hori ikusi egin beharko dugu.

I.L.: Ekartzekotan, egonkortasun batek ekarriko digu arrakasta. Eta hile batean toki batean eta hurrengoan bestean eginez gero, etorri daitekeen bezero potentzial hori zoratu egin dezakegu. Bezeroa ohitu egin behar dugu.

Besterik gehitu gura duzue?

I.L.: Herritarrei, datozela!

A.U.: Bai, datozela, erosteko eta ikusteko aukera egongo da eta. Sortu berri den azoka honek herritarren berotasuna behar du.

Herrizaintza proiektuak boluntario gehiagorengana heldu gura du

Herrizaintzaren sustatzaileek mahai informatibo bat ipiniko dute herriko plazan, azaroaren 17an

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gura bako bakardadean bizi diren herritarrei laguntzeko asmoz, Elorrioko Udalak Herrizaintza egitasmoa ipini zuen martxan iazko maiatzean. Udalak sare komunitario bat osatzen jarraitzeko konpromiso irmoa du, beharturiko bakardadearen ondorioak leuntzen eta arrisku egoerak saihesten laguntzeko. Udaletik azaldu dutenez, urte eta erdiko ibilbidean hainbat erabiltzailerik eman die zerbitzua Herrizaintzak, eta, orain, dagoen eskariari erantzuteko asmoz, bidelagun edo boluntario berriak erakarri gura dituzte.

Boluntario horiek, astean dei anonimo bat eginda, bakarrik sentitzen diren pertsonen laguntza emozional handia ematen diete. Beraz, partaide izateko prestutasuna dutenek bide bi dituzte aukeran: 688 65 54 61 telefonora deitzea edo herrizaintza@elorrio.eus helbidera idaztea.

Bestalde, Herrizaintzaren sustatzaileek mahai informatibo bat ipiniko dute herriko plazan, datorren barikuan, azaroak 7. 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bisitatu ahal izango da, eta bertan modu zuzenean jaso ahalko dituzte herritarrek xehetasun guztiak.



Boluntarioek babesa ematen dute, aterki batek lez.

Berdintasuna sustatzeko plana ebaluatu dute Elorrioren

Berdintasuna sustatzeko IV. Planaren ebaluazioa egin dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko IV. Planaren (2017-2023) ebaluazioa egin du. Jakinarazi dutenez, txosten bat egin dute, 2023ko lehenengo hileetan hainbat dokumenturen infor-

mazioa eta udal barruko zein kanpoko iritziak jaso ondoren. "Gogoeta eta ikasketa prozesua izan da, eta, gainera, Elorrioko Berdintasunerako Ordenantzen zirriborroa diseinatzen lagundu du", adierazi dute udaleko kideek.



Polikiroldegian dagoen murala.

Truke eta bigarren eskuko azoka egingo dute zapatuan, azaroak 11, Arrazolan

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bihar, azaroak 11, truke eta bigarren eskuko azoka egingo dute Arrazolan, Amillenako kideek antolatuta. Azoka 11:30ean hasiko da eta antolatzaileek bertan parte hartzeko deia egin diete herritarrei. Azokaren ondoren, 14:30ean, baba-jana egingo dute. Bazkarira joan gura dutenek aurrez izena eman beharko dute 946 278 907 telefono zenbakira deituta.

Arratsaldean, 16:30ean, La Sigarta Blues Band taldearen kontzertua egongo da.



Amillenaren aurreko plazan egindako azoka.



Gremioen gida

Zurgintza

leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatazaile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Aldundiak Mallabiko Goitondo industrialderako eta auzoetarako sarrerak hobetuko ditu

Aldundiak 3,9 milioi euroko inbertsioa egingo du BI-2301 errepideko tarte horren segurtasuna hobetzeko. Lanak azaroan lizitatuko dituzte eta 2024ko udaberrian hasiko dira



Imanol Pradales Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako diputatua, Pilar Trueba obrako zuzendaria eta Igor Agirre alkatea aurkezpenean.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko Aldundiak 3,9 milioi euroko inbertsioa egingo du Areatiotik Ermura doan BI-2301 errepideko tarte bat hobetzeko. Hain zuzen ere, Goitondo industrialderako eta Berano nahiz Arandoño auzoetarako sarreretan egingo dituzte lanik gehienak. Proiektua azaro amaieran lizitatuko dute eta lanak 2024ko udaberrian hasia aurreikusten dute, 14 hilabeteko egikaritze-epaegaz.

Industrialderako eta auzo bietarako sarrera-irteerak seguruago egiteko, errei zentralak sortuko dituzte: itzarote-erreiak eta azelerazio erreiak. Horrez gainera, errepide zati bati aldatsa kenduko diote, hobeto ikusi dadin. Proiektuaren barruan, sarbide berria egingo dute ostalaritza establezimenduetara joateko, inguru horretako autobus geltokia hobetuko dute, eta zebra-bide bat egingo dute.

Segurtasuna hobetzeko

Proiektuaren helburua bideko segurtasuna hobetzea da. Izan ere, astegunetan, 4.800 ibilgailu igarotzen dira bertatik egun bakoitzeko. Eurretari 800 inguru kamioiak dira. Lanek segurtasuna eta industrialdearen garapena hobetzen lagunduko dutela uste du Igor Agirre alkatea. "Mallabiarentzat, auzoentzat eta herriko industriarentzat proiektu garrantzitsua da", adierazi zuen joan zen barikuan, Imanol Pradales Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako diputatuagaz batera udaletxean emaniko prentsaurrekoan.

ere, astegunetan, 4.800 ibilgailu igarotzen dira bertatik egun bakoitzeko. Eurretari 800 inguru kamioiak dira. Lanek segurtasuna eta industrialdearen garapena hobetzen lagunduko dutela uste du Igor Agirre alkatea. "Mallabiarentzat, auzoentzat eta herriko industriarentzat proiektu garrantzitsua da", adierazi zuen joan zen barikuan, Imanol Pradales Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako diputatuagaz batera udaletxean emaniko prentsaurrekoan.

Gaurko bertso afariagaz hasiko da Mallabiko bertsolari gazteen txapelketa

Unai Izagirre, Irati Alcantarilla, Aissa Intxausti eta Iker Garitagoitia lehiatuko dira San Juaneko soziedadean



Soziedadea Goita auzoan, San Juan ermitaren ondoan.

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Bertsolari Gazteen V. Txapelketa hasiko da gaur, Zazparrada elkarteak antolatuta. Zortzi bertsolari arituko dira lehian, kanporaketa bitan banatuta. Kanporaketa bakoitzeko bi bertsolaririk onenak abenduko finalerako sailkatuko dira.

Lehenengo kanporaketa gaur hasiko da, 21:30ean, Goita auzoko San Juan ermitaren ondoko soziedadean. Unai Izagirre, Irati Alcantarilla, Aissa Intxausti eta Iker Garitagoitia dira bertan arituko diren lau bertsolariak. Bigarren

kanporaketa azaroaren 24an izango da, 21:30ean, Artixeko soziedadean. Honako hauek dira han parte hartuko duten lau bertsolariak: Ane Zuazubiskar, Ibai Amillategi, Oier Etxeberría eta Gorka Pagonabarraga. Finala abenduaren 8an izango da, Herririkoko soziedadean. Finalaren aurretik, 19:30ean, trikipotea egingo dute herriko tabernetatik.

Saio guztiek bertso afari formatua dute. Afariko tiketak Herrikoan, frontoian edo 696 058 967 telefono zenbakian eskuratu daitezke, 25 eurotan.

Astelehenetik aurrera berriro medikua izango dute Mañarian eta Izurtzan

Irailtik medikurik barik egon dira, eta elkarretaratzea egin zuten irtenbidea eskatzeko

MAÑARIA/IZURTZA • J.D.

Mañariko eta Izurtzako osasun zentroetan irailtik hona medikurik barik daudela salatzen, herri bietako biztanleek elkarretaratze jendetsua egin zuten joan zen barikuan Mañariko plazan. Ehun bat lagun batu ziren, eta protestak bere fruituak eman dituela dirudi. Osakidetza Lehen Arreta unitatetik Mañariko Udalarari jakinarazi diotenez, astelehenetik aurrera berriro medikua egongo da herri bietako osasun zentroetan. Datoren asteen astelehenetik eguaztena egongo da, baina, printzipioz, azaroaren 20tik aurrera ohiko zerbitzua berreskuratuko du, astelehenetik barikura.



Herritarrak Mañariko plazan batu ziren joan zen barikuan, medikua eskatzeko.


Boulder txapelketa eta musika kontzertuak Otxandion, Gazte Asanbladak antolatuta

Ekimen biak azaroaren 18ko zapatuan izango dira

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Gazte Asanbladak hainbat ekimen antolatu du azaroaren 18ko zapatarako. Egun osoan zehar boulder txapelketa egingo dute, frontoian. 11:00etan umeen kategorien txanda izango da, eta 12:00etan

helduena. Finala 17:30ean hasiko da. Izen ematea azaroaren 17ra artekoa da. Gauean, 22:00etan, Lasarte-Oriako Kina eta Zumaiaiko Bikabi taldeen kontzertuak egongo dira gatzetxean, eta DJ Guatek-en saioa horien ondoren.



Frontoian dagoen boulderrean egingo dute txapelketa.

Zorionak, Anboto!

Durangaldeko euskarazko komunikazio proiektuak 22 urte egin ditu

22 kandela ipini ditzakegu ANBOToren zorionetako pasatean. Eta denak batera putzaldi bakarragaz amatatuz gero, desio potolo bat eskatzea ere tokatuko litzaiguke. Bi hamarkada baino gehiagotan lorturikoa itzela da eta aurrera begira ere badago zer egin. Desinformazioaren aroan, hedabideon lana inoiz baino garrantzitsuagoa da. Kalitatezko informazioa bertatik bertara landuta, komunitatetik komunitatearentzat. Horixe da gure lanaren esentzia: 0 kilometroa euskara ardatz hartuta.

Orain 22 urte, harpidetza kanpaina betean furgoneta batez eskualde osoa zeharkatu genuen egitasmoari zabalkundea eman guran. 11 herriren informazioa lantzen hasi ginen. Geroago, Mallabira eta Zornotzara ere heldu ginen. Aldaketa etengabea bizi du kazetaritzak. Digitalizazioak guztiz aldatu ditu kontsumo ohiturak, eta horrek webgunean inoizko ahaleginik handiena egitea eragin du. Hurrengo erronka intelgentzia artifizialarena da. Gaur

egun, paperean 12.000 ale kaleratzen ditugu barikuro, eta webguneko bisitak ere gorantz doaz. Pandemia sasoiaren webguneko datuak bikoiztu egin ziren. Igarri genuen gure komunitatea adi zegoela informazio fidagarria irakurtzeko gogo eta beharragaz. Baina ezin gara lokartu. Hedabideen mundua ziztu bizian aldatzen dabil, eta olatu horri heldu behar diogu, ezinbestean.

Amaitzeko, ESKERRIK ASKO! erraldoi bat bidali gura dizugu, irakurle, hau guzti hau ez litzatekeelako posible izango milaka lagunen ekarpenari eskerrak ez balitz. Irakurleak, Anbotokideak, babesleak, kolaboratzaileak, langileak, urte hauetan proiektuaren parte izan diren profesionalak, instituzioak eta Durangaldeko eragileak, besteak beste. Proiektuan sinistu duzue eta komunitate hori oinarrian izateak zentzua ematen dio hedabide honen lanari. Eskerrik asko bihotz-bihotzez!

ANBOTOKO lantaldea



ANBOToren sorrerako argazkia.



Banatzaileak 10. urteurrean.



Eneko Sagardoy aktorearen antzezlanaren 500. aleko jaiak.



Gaur egungo lantaldeko kideetarikozko batzuk.



Karrika antzerki taldeko kideak lokal berriaren inaugurazioan, 2010eko urtarrilean.



ANBOToren 10. urteurren jaiko argazkia.



Erdian, Jone Guenetxea, Kudeaketa Aurreratuko diploma jasotzen.

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

AZAROKO ZOZKETAK



Papirus umeentzako antzerkirako sarrera bikoitza. Azaroaren 18an, Arriolan



Lasala 10 urte dantza ikuskizunerako sarrera bikoitza. Azaroaren 18an Berrizko kultur etxean.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Gosaria Xiberun:

Amaia Axpe Mugica

Arrainak bihotzean ikuskizuna:

Ainhoa Solozabal Arantzamendi

Gosaria Herrian:

Rosa Mari Ardanza Mendilibar

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Berrizko Udalak bizitegi erabilerako lursail bat salgai duela gogoratu du

Partzela Margarita Maturana kalean dago eta familia bakarreko etxebizitza bat eraiki daiteke bertan



Berrizen eraikigarri dagoen lursaila.

BERRIZ • A. M.

Berrizko Udalak lehiaketa publikora atera zuen Margarita Maturana kalean dagoen bizitegi erabilerarako lursail bat; oraintsu, eskaintzak aurkezteko epea azaroaren 13an amaituko dela gogoratu du, prentsa ohar baten bitartez. Lursailak 367 metro koadroko gehienezko eraikigarritasuna du, familia bakarreko etxebizitzarako, eta 52,09 metro koadroko garajea ere egin ahal izango litzateke. Administrazio-klausulen pleguak jasotzen duenaren arabera, udal titulartasuneko orubeak 1.448,50

metro koadroko azalera du, eta hortik 367 metro koadroko eraikigarritasuna. Lizitazioaren prezioa 96.036, 81 eurokoa da (gehi %21eko BEZA). Informazio tekniko guztia Euskadiko Kontratazio Publikoaren plataforman argitaratuta dago, Berrizko Udalaren esanetan. Horrez gainera, 94 682 40 36 telefonoa ipini dute, interesa dutenek udaleko hiri-gintza arloagaz hartu-emanetan ipintzeko. Esleipenean, eskaintza ekonomikoak 90 puntuko balioa izango du gehienez, eta konpromiso eta bermeengaitik 10 puntu emango dituzte.

Berrizen Gaztañerre ospatuko dute zapatuan

BERRIZ • A. M.

Aurten ere, Berrizen ohiko Gaztañerre ospatuko dute. Berrizko Udaleko Partaidetzarako udal kontseiluak antolatuta, zapatuan izango da ospakizuna, 19:00etan, Olakueta plazan. Arratsaldean zehar, elikagaiak batuko dituzte Sahararako; besteak beste, sardinak oliotan, arroza, azu-

Elikagaiak batuko dituzte Sahararako; besteak beste, sardinak oliotan, arroza, konpresak eta lekaleak

krea, pasta, konpresak, atuna oliotan eta lekaleak. Udalak parte hartzera deitu du; hala ere, gogoratu dute elikagaiak eramatea ez dela derrigorrezkoa gaztainak jasotzeko.

Bestalde, Ireminie dantza taldeak euskal dantzen ikastaroa antolatu du. Ikastaroa azaroaren 15ean hasiko da eta martxoaren 20ra arte iraungo du. Saioak eguaztenetan izango dira, 19:30etik 21:00etara. Ikastaro osoaren prezioa 15 euro da. Izen ematea Kultur Etxean bertan egin daiteke, edo bestela kultura@berriz.eus helbidera idatzita.

Castet Herriko tabernaren 31. urteurrena ospatzeko egitaraua prestatu dute

Zapatuan, hilak 11, egun osoko jaia egingo dute



Artiboko irudia.

ZALDIBAR • A. M.

Castet Zaldibarko Herriko tabernaren 31. urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dute aste honetarako. Eguenean, Ipar Hegoa fundazioko kide Martin Arbeok berbaldia eman zuen Palestinaren egoerari buruz. Zaturako, hilak 11, elkarteko kideek egun osoko egitaraua prestatu dute. Urteurren jaia herri bazkariagaz hasiko dute, 14:30ean. Bazkaostean, bingo musikatua eta ekitaldia egingo dituzte. Iluntzean, musika izango da protagonista: 21:00etan, Hacero inoxidable talde zaldibartarrak kontzertua emango du, eta 22:30ean Xaukena Xauk musika jartzaile zaldibartarrek girotuko dute gaua. Castet elkartek tabernak berak baino urtebete gehiago du, 32.

1937ko apirilaren 25ean Zaldibarko Santamañezar mendian hildako Iñaki Casteten omenez deitzen da elkartea horrela. Abellaneda batailoiko kidea zen Castet. Apirilero, Castet eguna ere antolatzen dute Zaldibarren.

Durangaldean elkarretaratzeak egin dituzte herri palestinarrari elkartasuna adierazteko

Gernika-Palestina Deialdi Herritarraren deialdiagaz bat eginez, Israel Palestinan egiten dabilen sarraskia gelditzeko eskatu dute

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Euskal Herriko 107 herrik bat egin zuten palestinarren alde mobilizatzeko Gernika-Palestina Deialdi Herritarraren martitzeneko deialdiagaz. Tartean daude Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Otxandio, Zaldibar eta Zornotza. Iurretako Juan Orobiogoitia ikastetxeko irakasleek ere elkarretaratzea egin zuten.

Israel Palestinan egiten dabilen sarraskia gelditzeko eta

konponbide politiko baten alde egiteko batu ziren. Mobilizazioaren deitzaileek azaldu zutenenez, Israelgo estatua palestinarrak hiltzen dabil eta egoera honetan "lotsagarria da" Europako agintari ugarik aurkeztu dituzten jokatibideak. "Kale protestak kolpeka hartzea, atxiloketak egitea eta Palestinako banderak debekatzea larria bada ere, oraindino larriagoa da Europar Batasuneko agintari azken egun hauetan aurkezturiko posizioa", gaineratu zuten.



Goian, Elorriko elkarretaratzea. Behean, Durangokoa.

Paisaien katalogoa egiteko inkestan parte hartzeko aukera

Etorkizunean, Aldundiak lan hori baliatuko du eskualdeko eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partziala osatzeko

DURANGALDEA • J.D.

Bizkaiko Foru Aldundiak Durangaldeko Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoa eta Zehaztapenak lantzeko prozesua hasi du. Lanak hainbat fase izango du. Lehenengoa paisaia identifikatzean eta dokumentatzean datza, eta prozesu parte hartzaile bat ipini dute martxan herritarren iritziak jasotzeko. Iritziak hainbat bideetatik jasoko dituzte; esaterako, inkesta baten bitartez (inkestarako lotura anboto.org webguneko albistean). Aurrerago gai honen inguruko tailerra ere

egin dute Durangon. Informazioa Paisaiaren Katalogoa egiteko erabiliko dute. Paisaien ezaugarriak eta kontserbazio egoera kontuan hartuta, Paisaia Unitateak definitu eta lortu gura diren paisaiaren kalitate helburuak proposatzen ditu. Lanketa horretatik, Paisaiaren Zehaztapenak irtengo dira, hau da, paisaia-kalitatearen helburuak lortzea ahalbidetuko duten gomendioak, gerora Aldundiak landuko duen Durangaldeko Eremu Funtzionaleko Plan Partzialean jasoko direnak.



Inkestan, tankera honetako paisaien artean aukeratu daiteke.

EMAN IZENA 



BERBALAGUN

Praktikatu Euskaraz Gurekin

Erraza da

ZURE NEURRIRA HURBIL LAGUNARTEAN DOHAINIK ABANTAILAK

Berbalagun 639 400 786 
praktikatu.eus/blog/durangaldea
durangaldea@eek.eus

Sustatzaileak: 

Babesleak: 

Mendizale batzuek granada bat topatu dute Zabalandi aldean

Domusantu eguneko goizean topatu zuten lehengailua, baso bide bat gurutzatzen zebiltzala



Zantzu guztien arabera, gerra zibileko granada bat izan daiteke.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Abadiñoko familia batek herdoilduriko granada bat topatu zuen azaroaren 1ean, Urkiolako Parke Naturaleko lurretan. "Arrazolatik Zabalandira egin genuen igoera, Andasto eta Anboto arteko pagaditik. Behin Zabalandira ailegatuta, bidean aurrera egin genuen. Inora ez daraman pista batetik sartu ginen, basoa zeharkatuta, eta hantxe topatu genuen granada", kontatu dio mendizaleak ANBOTOri. Mendi ibilaldia egiten zebiltzan familia bereko

lau kideek topatu zuten lehengailua. Gurasoek eta seme-alabek. "Hasieran pinaburu bat zela pentsatu genuen. Gero, jostailuzko kantinplora baten traza hartu genuen. Objektua eskuetan hartu eta pisutsua zela igarri genuenean konturatu ginen egiazko granada bat zela", azaldu du gurasoetarikoa batek.

Aurkikuntza egin eta berehala Ertzaintzagaz ipini ziren hartu-emanetan. Behin hori eginda, familiako kideek han utzi zuten herdoildutako granada, inguru hartako harri baten gainean, poliziaren esku. Segurtasun Sailak baieztatu duenez, Ertzaintzak Lehengailuak Indargabetzeko Unitate bat bidali zuen egun horretan bertan Zabalandira. Granada han bertan neutralizatu zuten, 18:20 aldera.

Politikan

Jesica Ruiz
Perez
PSE-EE



Izan zirelako gara

Adinekoak dira daukagun aberastasun handienetariko bat. Bizitza oso lanean eman dute, eta horietako askok bizimodu oso gogorra izan dute: gerraostea, diktadura, trantsizioa beti borrokan, lanaldi hobeen alde, lan-baldintza hobeen alde, pentsio hobeen alde, eta berdintasuna defendatzen, emakumeok bigarren mailako herritarrak ginenean. Euren borroka, beraiantzat ez ezik gu guztiontzat zen. Gaur egun bizi-kalitate hobea badugu, haiei esker da, ez dezagun ahaztu.

Bizi-itxaropena gero eta handiagoa da, eta oraindik ere gizarteari laguntzeko gogo handia dute nagusiek. Udaletik jardura asko antolatzen dira haien zentzuz, hainbat tailer eta kurtso adinekoen zentroan, arreta psikosozialeko tailerrak hainbat auzotan, "Dantzaz dantza" Landakon igandeetan edo ibilaldi osasungarriak asetero.

Baina zorra dugu haiekin: adinekoen zentro edo egoitza duin bat. Nahiz eta instalazioak nahiko ondo dauden, zentrori sartzeko zeharkatu behar den tunel iluna, igo ahal izateko etengabe hondatzen den igogailua edo terraza bat ere ez duen kafetegia ez dut uste guk eskain diezaiekegun gauzarik onena denik. Askori adinekoen zentro bat izateak bizitza hobetzen die, izan ere, esperientziak partekatzen dituzte beste pertsona batzuekin, harremanak izaten dituzte, bakardadea alde batera uzten dute...

Esakerak dioten bezala, ez zara konturatzen daukagun horren balioaz galtzen duzun arte. Beraz, jabetu gaitzen haiek direla gure benetako altxorra. Eta ez dugu inoiz ahaztu behar, izan zirelako gara.



ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

Eguneko Zentroa Elorrión, JA!

Bizkaiaiko Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako ahaldun nagusi zaren hori:

Elorrioko Pentsionisten mugimenduaren izenean zuzana jotzen dugu gutun ireki honen bidez, Elorrión eguneko zentroaren gabezia salatzeko asmoz. Urteak daramatzagu eguneko zentroa edukitzearen premia aldarrikatzen. Bide batez esan beharra dago, bertoko talde politiko guztiek aldarrikatzen dutela gauza bera hauteskunde kanpainetan.

Pentsionista Mugimendu gisa, herrian 1.150 sinadura bildu ondoren, eguneko zentroa gauzatzearen aldeko mozioa aurkeztu genuen udal osoko bilkuran. Mozioa onartua izan zen EH Bildu eta Elkarrekin Podemosen aldeko botoekin eta PNVren abstentzioarekin.

Bozketa bera berronartua izan zen geroagoko beste udal osoko bilkura batean. Esan beharra baita ere PNVk zentroaren alde egin zuela hauteskunde kanpainan.

Horren harira, alkatetzak Aldundiko arlo horretako arduradunarekin batzarra eskatu zuen.

Batzarra egin zen Murillo jauna Aldundiko arduradunaren, Idoia Buruaga alkatearen, María Herreros alkateordearen eta pentsiodun baten partaidetzarekin.

Batzarraren ondorio bakarra, estudio bat egin behar zela jakin ahal izateko, Elorrión zentroaren premia ote zegoen ala ez, Murillo jaunaren esanetan. Ba, estudio delakoa Elorrioko udal gobernuko

taldeak martxan jarri zuen G.P.S. enpresaren eskutik, urte honetako martxoan, hain zuzen ere.

Estudioa gauzatzeko, Aldundiak ez zuen eskaini ez oinarrizko datu-rik ez eta inolako laguntzarik ere.

Datu esanguratsuenak aipatzearen, gaur egun Elorrión 1.715 pertsona daude 65 urtetik gorakoak, eta 125 pertsona 2-3 graduko dependentziarekin. Bizkaia osoan bi herri baino ez daude tamaina honetako datuekin eguneko zentrorik gabe: Sopela eta Elorrión.

Datu horiek eta estudioa eskuetan, herriko hautetsiek batzar bat izan dute Amaia Antxustegi Aldundiko arduradunarekin, eta ezezkoarekin jarraitzen du, esanez "badagoela zentroa Durangon."

Bai ba, jakina! Eta Bilbon, Elgetan, Eskoriatzan... Soberako hitzak. Elorrión honetan egunero jasaten ari gara Igurian, Pullan... inguru guztian, Abiadura Handiko Trena delakoaren triskantza inongo kontrolik gabe eta dirua kamioikadaka xahutzen; beraz, ez goaz onartzera eguneko zentrorik ez izatea Elorrión.

Bizitza osoan zehar, pertsona oro zaintzeko eta zaindua izateko dugu eskubidea defendatzera goaz.

Horretan datza hain zuzen ere administrazioak darabilen leloa, hots: "Euskadi bien común", "Euskadi auzolana", horren erabilia, non mamia kendu dioten. Aurrera Elorrión eguneko zentroa lortu arte.

Jesus Aristegi, Aitor Larrañaga, Fernando Larañaga eta Jose Luis Gutierrez, Elorrioko Pentsiodunen Mugimenduaren izenean.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, -IURRETA • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOrin irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

hitz liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

2^o OSO LATZA IZAN DA
Xabier Mendiguren (Elkar)

3^o POSTAL BAT DESERTUAN
Julen Apella (Balea Zuria)

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

BURUARI KLIK!






MARGOTU

Margotu beheko irudia gurago duzun moduan.



ESAERA ZAHARRA

Bete lauki bakoitza dagokion letragaz behean
daukazu alfabetoari jarraituta.



A B D E F G H I



J K L M N Ñ O P



R S T U X Y Z





ASMAKIZUNA

Ordenagailuko pasahitza ahaztu zaio. Beheko pistei jarraituz asmatzen lagunduko diozu?



- 1.- Bere neba nagusiaren jaiotza urtea da.
- 2.- Bera 1989an jaio zen.
- 3.- Bere ahizpa txikiagaz hiru urteko aldea dauka.
- 4.- Bere ahizpa txikiak eta bere nebak zazpi urteko aldea dute.

FISIKAREN ORDUA

Zein helduko da lehenago lurrera? Sagarra ala luma?



DIFERENTZIAK

Topatu zazpi diferentziak.




Zein itzal dagokio goiko irudiari?

ITZALAK



ZEIN DA EGOKIA?


Beheko zati guztietatik bi ez dira egokiak. Zeintzuk bai?



SEKUENTZIA JARRAITU

Punto larrosatik hasita, jarraitu beheko sekuentzia eta irudia lortuko duzu.

3 ↘ 3 ↓ 3 ↙ 3 ← 2 ↘ 1 ↓ 1 ↖ 1 ← 2 ↘ 1 ↓
 1 ↖ 1 ← 1 ↘ 1 ↓ 1 ↙ 1 ↑ 1 ↖ 1 ↙ 5 ← 1 ↖
 1 ↙ 1 ↓ 1 ↖ 1 ↑ 1 ↗ 1 ← 1 ↙ 1 ↑ 2 ↗ 1 ←
 1 ↙ 1 ↑ 2 ↗ 3 ← 3 ↖ 3 ↑ 3 ↗ 4 ↓ 1 ↘ 3 ↑
 2 ↘ 4 ↓ 1 ↗ 1 ↑ 1 ↗ 1 → 1 ↘ 1 → 1 ↗ 1 →
 1 ↘ 1 ↓ 1 ↘ 4 ↑ 2 ↗ 3 ↓ 1 ↗ 4 ↑





Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

'Baginaren bakarrizketak'

ANTZERKIA ABADIÑO :: AZAROAK 10

Errota kultur etxean, 20:30ean



TXALO PRODUKZIOAK

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Azaroaren 10ean

BERRIZ musika

Los Sara Fontan, 21:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO merkatua

Mendiko materialaren merkatua, 17:00etatik 21:00etara, Alpino mendizale taldeko egoitzan.

ELORRIO musika

Xahu Quartet, 20:00etan, Ateneoan. Arriolako XXXIV. Jazz Blues Jaialdia.

IURRETA musika

'El jazz de Claude Bolling' (JazzClassic Ensemble), 19:00etan, Kultur Etxean.

ZALDIBAR kontzertua

Armari + Eje, 21:00etan, Sorgin tabernan.

ZORNOTZA jaialdia

'Xabier Amuriza, Torreburutik Euskal Herrira kantuz', Etxanoko Erraldoien kalejira, 17:30ean, Etxanon. **Ikastetxe guztietako haurren kantaldiaren topaketa**, 18:00etan. **Umeen kantaldia Abeskimu koruak lagunduta**, 18:30ean.

ZORNOTZA omenaldia

'Lurdes gure bihotzean' oroimen ekitaldia, 19:30ean, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 11n

ABADIÑO antzerkia

'Media vida' (Jarapandra), 19:00etan, Errota kultur etxean.

ABADIÑO tailerra

Talo tailerra (12-18 urte), 17:30ean, Muntzaratzen.

BERRIZ bertsoak

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, 17:00etan, Olakueta frontoian.

DURANGO merkatua

Mendiko materialaren merkatua, Alpinoko egoitzan (11:00-14:00 / 17:00-20:00).

DURANGO musika

Kuttune, 19:00etan, San Agustin kulturgunean. XXXIV. Musika Hamabostaldia.

ELORRIO musika

The Wilson Organ Trio, 22:00etan, Ateneoan. Arriolako XXXIV. Jazz Blues Jaialdia.

ZORNOTZA jaialdia

'Xabier Amuriza, Torreburutik Euskal Herrira kantuz', **'Bizi bat oroimenean' (X. Amuriza) ibilaldi antzeztua**, 09:30ean, Etxanon. **Bideo emanaldia**, 14:00etan, elizan. **Herri bazkaria**, 15:00etan. **Eneko Larruzeagaz kantaldia**, 17:00etan. **Soinu Txikie**, 20:00etan,

Zelaietako frontoian. **Ikuskizuna**, 21:30ean, Zelaietako frontoian.

ZORNOTZA antzerkia

'Esna' (Marie de Jongh), 17:30ean, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 12an

ABADIÑO musika

Neu Troia, 12:30ean, Isiotu elkartearen lokalean.

ABADIÑO pilota

Abadiñoko II. Esku Pilota Herrikoia, 17:00etan, Zelaietako frontoian.

ABADIÑO azoka

Ekoizle eta artisauen azoka, 10:30etik 14:30era, Txanportan.

ABADIÑO antzerkia

'Kelsonia eta itsasoa' (Gorakada), 17:30ean, Errota kultur etxean.

DURANGO antzerkia

'Arraina bihotzean' (Mar Mar), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO dantzaldia

Nagusientzako dantzaldia, 18:30etik 20:30era, Landako kiroldegian.

ELORRIO musika

La Siggarta Blues Band, 20:00etan, gaztetxean. Arriolako XXXIV. Jazz Blues Jaialdia.

ZORNOTZA jaialdia

'Xabier Amuriza, Torreburutik Euskal Herrira kantuz', **Gosaria**, 10:30ean, Etxanon. **Irrintzi ikastaroa**, 11:30ean. **Kontzertua**, 12:30ean.

Azaroaren 12ra bitartean

DURANGO erakusketa

'Bizitza baten islada: itsasoa, mendia eta gorputza' (Jaime Vicarioren lanak) eta 'Zorionez baztertuak' (Patricia Laiseka) erakusketak, Arte eta Historia museoa.

Azaroaren 13ra arte

ZORNOTZA erakusketa

'Bizkairi begira. Artearen ibilbidea', Zelaieta Parkean.

Azaroaren 13tik 20ra bitartean

IURRETA erakusketa

'Bizkairi begira. Artearen ibilbidea', Askondon.

Azaroaren 15ean

ABADIÑO berbaldia

'¿La fiesta era ésto? Sí, la fiesta era ésto' (Hizlaria: Nerea Barjola), 18:00etan, Errota kultur etxean.

ELORRIO berbaldia

'Guggenheim Urdaibain' (Hizlaria: Eider Gotxi), 19:00etan, Iturri kultur etxean.

Azaroaren 16an

ELORRIO musika

HAN, 20:30ean, Ateneoan. Arriolako XXXIV. Jazz Blues Jaialdia.

IURRETA musika

Xabier Zeberio, 11:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA musika

Elkano Browning Cream, 20:00etan, Zelaieta zentroan.

Azaroaren 17an

ABADIÑO antzerkia

'Loa loa, laguna' (Maider Lasa Santamaria), 20:30ean, Errota kultur etxean.

BERRIZ antzerkia

'Papyrus' (Xirriquituela Teatre), 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO ipuinak

Amaia Egidazu ipuin kontalaria, 17:00etan, Otamotzena auzogunean.

ELORRIO musika

Kinkfolk, 20:00etan, Ateneoan. Arriolako XXXIV. Jazz Blues Jaialdia.

IURRETA musika

Elkano Browning Cream, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA antzerkia

'Mierda de ciudad' (Olatz Gorrotxategi), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• Superheroien familia

barikua 10: 17:00
domeka 12: 17:00

• Ninjababy

eguztzena 15: 18:30

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• The Marvels

barikua 10: 18:30 / 21:00
zapatua 11: 16:30 / 19:00 / 21:30
domeka 12: 17:00 / 19:30
astelehena 13: 17:00 / 20:15
martitzena 14: 17:45 / 20:15
eguztzena 15: 19:00

• Un amor

barikua 10: 18:30 / 21:00
zapatua 11: 19:00 / 21:30
domeka 12: 19:30
astelehena 13: 18:00
martitzena 14: 17:45 / 20:15
eguztzena 15: 19:00

• El favor

barikua 10: 18:30 / 21:00
zapatua 11: 17:30 / 19:30 / 21:30
domeka 12: 17:00 / 19:30
astelehena 13: 18:00 / 20:15
martitzena 14: 17:45 / 20:15
eguztzena 15: 19:00

• El nuevo dinosaurio de Nobita

zapatua 11: 16:30
domeka 12: 17:15

• Turandot (opera)

astelehena 13: 19:15

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• Monstruo

domeka 12: 20:00
astelehena 13: 20:00

• La patrulla canina: la superpelícula

domeka 12: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Alimañas

domeka 12: 20:00
astelehena 13: 20:15

• Vampiro al rescate

domeka 12: 17:00

• Aftersun (JBGA)

martitzena 14: 20:15



astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

17.zk 2023 • 5€

Saltokiak

Abadiño: Petite eta Zelaietako estankoa

Atxondo: Amillena

Berriz: Etxebarria estankoa

Durango: Etxebarria, Urrike, Hitz, Arteka, Ikerfer,
Gozo Txori, Marpa eta Durangoko Museoa

Elorrio: Txokolat

Iurreta - Iurretakopi

Otxandio: Axpe estankoa

Zaldibar: Imendian

Bilbo: Anti liburudendan



Worth It, artxiboko irudi batean. PEIO GOIENETXEA

Filosofia praktikara eramateko asmoz antolatu dute BHCK Fest

BHCK Fest jaialdiaren 5. edizioa egingo dute azaroaren 18an, Berrizko Hiltegiarekin gatzetxean; zortzi taldek parte hartuko dute

MUSIKA • JOSEBA DERTEANO

Euskal Herriko hardcore zaleen topagunea izateko asmoagaz itzuliko da BHCK Fest jaialdiaren edizio berria, bosgarrena, hain zuzen ere. Azaroaren 18an izango da, Berrizko Hiltegiarekin gatzetxean, eta zortzi musika taldek parte hartuko dute bertan; talde horietariko bost Durangaldekoak izango dira: Armari, Eje, Ezta Ilen, Unfix eta Worth It. "Esango nuke berpizkunde bat egon dela pandemiak eragindako geldialditik hona, eta horixe da bosgarren edizio honetako abiapuntua. Etenaldi bat dagoenean gogotsu itzultzen da jendea, eta kasu honetan horixe gertatu da. Eszena berritu da eta gauza berriak irteten dabilta, eta BHCK Festen hori batzen ahalegindu gara", azaldu du Unai Baseta BHCK kolektiboko kideak. "Lehendik zeuden taldeek indar gehiago dutela esango genuke, Worth It eta Kolpeka taldeek, adibidez, eta, horrez gainera, freskotasan berri bat igartzen da orain, talde berriak egin direlako, beste nabardura batzuk gehitu dituztenak", gehitu du Eneko Basetak.

Ternura talde bilbotarrak, Kolpeka gernikarrak eta Aresi bermeotarrak ere joko dute. "Mapa hartu eta eszenak batzen ahalegindu gara, bai geografikoki eta baita doinu aldetik ere. Hardco-

reak batzen dituen doinu desberdinak gurera ekartzen ahalegindu gara", azpimarratu du Aritz Aranburu 'Tarran' kideak ere; horrez gainera, ingurua osasuntsu ikusten dute, eta horren adierazle lez, aurtan kaleraturiko hainbat disko aipatu dute: "Kontzertu mordoa egin da aurtan, eta diskotzarrrak kaleratu dira. Begira Tooth, Vibora, Revertt eta Ezta Ilenenak". Bestalde, June Ruizek jaialdia Hiltegiaren egitea nabarmendu

Durangaldeko bost talde arituko dira jaialdian: Armari, Eje, Ezta Ilen, Unfix eta Worth It

Jaialdiaren bosgarren edizioa 18:00etan hasiko da, eta, guztira, zortzi taldek parte hartuko dute

du: "BHCK gatzetxeetako filosofien isla da. Kolektibizatze leku bat dira, saretzekoa, taldeen artean hartu-eman indartzekoa". "Hardcorearen filosofia praktikara eramatea da, funtsean", gehitu du Iban Etxebarria. Jaialdia 18:00etan hasiko da eta sarrera 10 euroan erosi ahal izango da, egunean bertan.

MUSIKA • J.D.

Lehenagotik ere musika munduan ibilitakoak diren arren, aurtan sorturiko taldeak dira Eje eta Armari; gaur elkarregaz joko dute Zaldibarko Sorgin tabernan, eta sortzen ari den hardcore olatu berriaren erakusleetariko bi izango dira datorren astean Berrizen egingo den BHCK Fest jaialdian. Unai Baseta, Eneko Baseta, Iban Etxebarria 'Ezkerria' eta Aritz Maldonado dira Eje.

Irailean kaleratu zenuten 'I', eta orain zuzenean aurkezten ari zarete.

Unai Baseta: Otsailean egin genuen lehenengo entsegua, maiztean lagun batzuek antolatutako jaialdian kontzertutxo bat emateko asmoagaz. Gustura geratu ginen egindako abestiek, eta ekainean horiek grabatzea erabaki genuen.

Eneko Baseta: Zerbait puntuala egiteko asmoz hasi genuen Eje, Haatik eta Stronger Together taldeak denbora baterako gelditu egon behar ziren eta. Baina gustura gabiltzala ikusita, aurrera egitea erabaki genuen, eta badirudi harrera ona izan dugula, kontzertu nahikotxo lotu ditugulako udazkenerako. Gernikako Iparragirren jo dugu, Elorrioko Ateneoan, eta Bilboko Sarean

"BHCK Fest da egiten ari diren doinu berri horien erakusle"



Eje. MIRIAM CARO

aretoan; Berrizko Hiltegiaren eta Donostiako Mogambon joko dugu, datozen asteetan.

Aritz Maldonado: Talde itzelekin jotzeko aukera izan dugu, gainera: Vibora, Zikin, Foreseen, Oscuro Culto... Lagun asko egiten ari gara. **Armarrigaz joko duzue gaur Zaldibarren.**

U. B.: Gau polita izango da. Aspalditik ezagutzen ditugu Armarriko kideak, eta gurean antzeko iturrietatik edaten dutela esango nuke. Filosofian ere bat egiten dugu: kontziente gara gure espazioak zeintzuk diren, eta

elkarregaz gauza politikak irten daitezkeela uste dut. Oraingoz, gure asmoa kontzertuak ematea da, ondo pasatzea, dantzan egitea, eta disfrutatzea.

Talde sorta politikak osatzen du V. BHCK Fest jaialdiaren kartela.

Iban Etxebarria: Eszena berritu egin da, eta gauza berriagoak egiten ari da, eta BHCK Fest horren erakuslea da, neurri batean. Esango nuke aurtengoa oso urte ona izaten ari dela. Inguruko taldeek disko itzelak kaleratu dituzte, eta jaialdi eta kontzertu ugari antolatu ari da.

"Sustraietara jo da eta horrek punk eta oi! zaleak erakarri ditu"

MUSIKA • J.D.

Armari taldeak estreinako kontzertua emango du gaur Zaldibarko Sorgin tabernan, "etxean". Talde berria izan arren, ibilbide luzeko kideek osatzen dute; besteak beste, Worth It, Kohatu, Drop! eta Kutreband taldeetan aritu dira Aritz Aranburu 'Tarran' zaldibartarra, June Ruiz eta Martin Sarasketa berriztarrak eta Kepa Bruña arrasatearra.

Gogotsu gaurko?

June Ruiz: Oso. Lehenengo kontzertua lagun artean egin gura genuen, etxean lez sentitzeko, eta horregaitik aukeratu dugu Sorgin. Guk sorturiko zortzi abesti eta bertsiotxo bat joko ditugu. **A. A.:** Lehenengo kontzertuek beti dute kutsu berezi bat, horregaitik gura genuen Ejeko lagunekin Sorginen egin. Bere sasoian, Stronger Together eta Worth it taldeekin berdina egiten ahalegindu ginen, eta arantzaxo hori genuen. Berpizkunde baten modukoa egon da orain, eta uste dugu egun berezia izango dela gaurkoa.

Zelan sortu zenuten taldea?

A. A.: Kepak eta biok proiektu berri bati ekin gura genuen, hardcorea abiapuntu zuena, baina, aldi berean, erroetara jo; uste dugu horrelako atzera begiratu bat egon dela, sustraietara, eta horrek punk eta oi! doinuen zaleen hardcorea hurbildu dituela. Bestelako doinuak ere jorratu izan ditugu beste talde batzuetan, baina oraingoa hardcorea bueltatu gura genuen.

Euskaraz abesten duzue.

J. R.: Bai, ez zen beste aukerarik planteatu ere egin. Berbak Armarriren aurkezpen moduko bat dira, estetikari loturik daudenak ere, Erdi Aroko imajinarioagaz. *Lau ezpata, armari bat* esaten, adibidez, denok batera indartsuagoak garela esan gura dugu, bai talde lez, baita eszenan ere.

Aurrera begira, zein asmo duzue?

Martin Sarasketa: Zuzenean jotzen hastea, ahal denean grabatzea, eta disfrutatzea.



Armari. UNAI URIZAR

Durangaldeko hiru bertsolari Bizkaiko txapelketako lehenengo finalerdian

Berrizen izango da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehenengo finalurrekoa, zapatuan



Eneko Abasolo 'Abarkas' Lekeitioko kanporaketan abesten.

BERTSOLARITZA • A. M.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren fase berri bat hasiko da asteburuan. Lehenengo finalurrekoa Berrizen jokatu da, zapatuan, azaroaren 11n, Olatueta frontoian. Durangaldeko hiru bertsolari kantatuko dute

bertan: Gorka Pagonabarraga durangarrak, Iruri Altzerreka garaitarrak eta Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarrak; Lekeitioko saioa irabazita, 'Abarkas' zuzenean sailkatu zen Berrizko finalerdira, 466 puntu eskuratuta.

Berrizen arituko den seikotea Aitor Etxebarriazarragak, Koldo Gezuragak eta Xabat Gallettebeitiak osatuko dute. Itxaro Juaristi abadiñarrak egingo ditu gai jar-tzaile lanak.

Bigarren finalurrekoa Santurtzin jokatu da, eta bertan kantatuko dute Durangaldeko beste hiru sailkatuek: Aitor Bizkarra, Bitor Altube eta Txaber Altube abadiñarrek. Eurekin batera, Jone Uri, Mikel Goiriena eta Unai Mendiburu arituko dira. Serantes kultur aretoa izango da saioa. Azaroaren 25ean izango da hirugarren eta azken finalurrekoa. Bertan, Nerea Ibarzabal azken txapeldunak, Onintza Enbeitak, Ibai Amillategik, Oihana Bartrak, Josune Aramendik eta Aissa Intxaustik kantatuko dute. Lemoako udal kiroldegian izango da saioa, 17:00etan.

Bilbo helmuga

Finalurrekoetako saioen irabazleak zuzenean sailkatuko dira Bilboko finalera, eta gainerakoek puntuazioaren arabera edukiko dute horretarako aukera. Finala abenduaren 16an izango da, Bilbo Arenan. Saio guztietarako sarrerak *bertsosarrerak.eus* webgunean daude salgai.

Durangaldeko sortzaileen lanak Zinebi jaialdian

'Betiko gaua' lehiaketa ofizialean, eta 'Aire' eta 'Wikiemakumeok DOnK' Bertako Begiradak sailean emango dituzte hurrengo egunetan

ZINEMA • A. M.

Zinebi Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko jaialdia hasi da gaur. Bertan, Durangaldeko hainbat sortzaileen lanak estreinatuko dira. Sail ofizialean, Eneko Sagardoyk zuzendu duen *Betiko gaua* lehiatuko da; aktore durangarrak zuzenduriko lehenengo lana da hau. Miren Gaztañaga eta Elena Irureta dira protagonistak; Ander Sagardoy durangarrak ekoizle legez parte hartu du.

Bestalde, Bertako Begiradak sailean, Durangaldeko hainbat sortzailek parte hartu duten lanak emango dituzte: Bideografik ekoiztetxeak parte hartu duen *Aire!* eta besteak beste Marisa Barrenak zuzendu duen *Wikiemakumeok DOnK* dokumentalak proiektatuko dituzte. *Aire!* dokumentalean, Maurizia Aldeiturriagarengan inspiraturiko 13 gazte dira protagonistak. Bigarrenen, wikipediako emakumeak dira. Jaialdiaren 65. edizioa da aurtengoa.



'Aire!'.

Gai librean

Tetsuo Neo Tokyoko bezala

1988ko uztailean estreinatu zen *Akira* (hizki larriz eta gorritz) Japoniako zine aretoetan.

Urte bereko azaroan, Mahmoud Darwish poetak, Palestinaren independentzia deklarazioa idatzi zuen.

Leherketa batekin hiria errauts artean utzita, hogeita hamaika urteren ostean, 2019an hain justu, hondakinen gainean berreraikitako NeoTokyo megalopolia azaltzen da filmean. Zeru zati txikiena ere ikusten uzten ez duten dorre erraldoien artetik dabilta gazteak droga eta tuneatutako motorren abiadura bizian, isilgailurik gabeko ihes-tutuen zarata maximizatuen oihartzuna neoizko argiekin nahastuz. Herabetu gabe, *bôsôzoku* mugimendu kontrakulturalaren triki-mailuak darabiltzate gerraren eta



Ainhoa Olaso Sopelana Behargina

Tetsuoren gorputza transformatzen hasten da inguruan duen guztia iruntzi eta hiria berriz ere hauts bihurtzeraino

Boterearen hainbat forma nahasten dira istorio ziberpunkean: leherkariak, gobernuaren kontrol errepresiboa...

sistemaren aurka asalatzeko Tetsuok eta lagunak.

Boterearen hainbat forma nahasten dira istorio ziberpunkean: leher-

kariak, gobernuaren kontrol errepresiboa, zientzialariena, erresistentzia antolatua... Deskontrolak ere hamaika kolore eta testura hartzen ditu.

Amaiera aldera, gobernuaren esperimentu zientifikoen ondorioz, naturaz gaindiko indarraz mozortuta, Tetsuoren gorputza transformatzen hasten da inguruan duen guztia iruntzi eta hiria berriz ere hauts bihurtzeraino.

Tetsuo gaztearen sekuentzia errepikatzen zait egunean zehar. Ez dakit errealitatea azaltzeko zein neurritan balio duen, baina nahasten zait deskontrola, inperialismoarekin eta genozidioarekin. Lukurreriarekin eta Urdaibaiko Guggenheimarekin. Etekinekin eta pobreziarekin. Mendekuekin eta eraillketekin.

Ez dakit honen guztiaren gainean idazteko poeta nahikorik dagoen.



Alicia Gomez Tabirakoko presidentea, Mirari Aldekoa Tabirakoko presidenteordea, Txetxu Basozabal eta Olatz Garitaonandia, joan zen asteburuko omenaldian. LUIS ITURRIOZ

“Eginiko lagunekin geratzen gara, horixe da saskibaloiak eman digun gauzarik onena”

Mirari Aldekoak eta Olatz Garitaonandiak agur esan diote saskibaloitari, eta Tabirakoko familiaren omenaldia jaso dute

SASKIBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Bizitza osoa Tabirakon eman eta gero, Mirari Aldekoak eta Olatz Garitaonandiak erretiroa hartzea erabaki dute. Ekainean jokatu zuten azkeneko euren bihotzeko klubagaz. Joan zen asteburuan, ligako partiduen amaieran, klubak omendu egin zituen Tabirakori eskaini dioten guztiagaitik.

Emozio askoko ekitaldia izan zen?

Mirari Aldekoa: Bai, maite zaituen jendea zuri agur esateko han

batzea hunkigarria da: familia, lagunak, jokalaria, entrenatzaileak... Oso polita da.

Olatz Garitaonandia: Bizi izan duzun denagaz akordatzen zara. Zugaz hainbeste urtean egoniko jendea han ikusteak emozionatu egiten zaitu.

Makina bat opari eta oroigarri jaso zenuten: lore sortak, kamisetak, argazki albuma... baina, Mirari, zuri eginiko erregalo bat berezia izan zen. Kontaguzu.

M.A.: Ez nuen inondik espero.

Amak saskibaloiko nire lehenengo zapatillak oparitu zizkidan. Neuk aukeratu nituen, bederatzi urte nituenean. Beste jokalaria batek erabiltzen zituenaren berdinak ziren. Halakotxeak gura nituen. Gero apurtu egin ziren edo txiki geratu zitzaizkidan, eta amak zakarrontzira bota zituen. Baina kariño handia nien eta zakarrontzitik atera nituen. Egia esanda, ez nekien zapatilla horiek non zeuden, baina amak gordeta zituen eta eurekin kantxara irten zuenean... hunkigarria izan zen. Aurrerantzean ondo zainduko ditut.

Zergaitik erabaki duzue saskibaloia uztea?

M.A.: Beste leku batean lanean hasi naiz, eta gatz egiten zitzaidan laneko eta entrenamenduetako ordutegiak bateratzea. Unibertsitatean nenbilenean ere antzera ibili nintzen. Azkenean heldu da momentu bat mentalki kostatu egiten zitzaidana. Erabaki gogorra izan da. Ez da egun batetik besterakoa izan, baina oso argi nuen. Ez nuela berdin gozatzen igartzen nuen. Saskibaloia oso

inportantea izan da nire bizitzan, eta ez nuen horrela ibili gura hainbeste maite dudako kirolean. Erabakia une aproposan hartu dudala uste dut eta eskerrak ematen dizkiot Tabirakori gehien gustatzen zaidan kirolagaz gozatzeko aukera ematearren hainbeste urtean.

O.G.: Belaun bietako lesioa inflexio puntua izan da niretzat. Lehenengo, belaun batean, eta ondoren bestean. Ez zen ebakuntza behar zuen lesioa, baina denbora asko behar nuen errekupeztzeko. Gero, jokatzeko hasi, berriro lesionatu, eta berriro errekupeztzeko. Berrituz ez lesionatzeko beldurragaz jokatzeko nuen eta ez nuen gozatzen. Egoera hori, urterik urte, mentalki astuna egin zitzaidan eta uztea erabaki nuen. **Saskibaloia, dituen ezaugarriengaitik, kirol gogorra da belaunentzat?**

O.G.: Bai. Nigaz jokatu duen taldekideetariko askok belauneko ebakuntza izan du; lotailukoa edo meniskokoa. Batez ere lotailukoa.

Zeintzuk dira bizi izan dituzuen unerik onenak?

M.A.: Ni saskibaloian eginiko lagunekin geratzen naiz. Horixe da saskibaloiak eman didan gauzarik onena, dudarik barik. Bestelakoan, Lauko Finalean Durangon jokatu genuen partidugaz geratzen naiz: Leire Intxaustik azken segundoan sarturiko saskiratzea, Landako kiroldegia beterik... Lauko Final hori irabaztea itzela izan zen.

O.G.: Ados nago. Lagun handiak egin ditugu saskibaloian, eta horregaz geratzen gara. Partidu batez edo besteagaz baino gehiago, taldekideekin bizi izaniko esperientziagaz eta momentuekin geratzen naiz.

Mirari, zure belaunaldiko Ane Garitaonandiak eta Ainhoa Baquek lehenago utzi zuten saskibaloia. Zure ere joan zara. Belaunaldi hartako bakarra geratzen da taldean: Gorane Urain.

M.A.: Bai. Beti elkarregaz izan gara eta orain Gorane baino ez da geratzen. Belaunetik lesionatuta dago, baina seguru topera bueltatuko dena!

Olatz, Ane Garitaonandia ahizpa duzu. Zelako esperientzia izan da ahizpa taldekide izatea?

O.G.: Oso esperientzia ona. Oso pertsona alai da eta laguntzeko prest dago beti. Niretzat laguntza handia izan da. Bere babesa funtsezkoa izan dut.

Aurrerantzean, zelan gozatuko duzue saskibaloia?

M.A.: Kanpotik. Oraindino ez dut guztiz barneratu. Joan zen asteburuan gatz egin zitzaidan partida harmailetatik jarraitzea. Inbidia apur bat eman zidan. Baina, tira, ahal dudako zapatuetan animatzera joango naiz kiroldegira, eta seguru nago gozatuko dudana.

O.G.: Une honetan ez nago saskibaloian oso sartuta. Oraindino mentalki deskantsua behar dut. Astean lau entrenamendu izan dira, urte askotan zehar, beste gauzaterako denbora murrizten dizu eta apur bat exijentea izan da.

Zein unetan dago Tabirakoko emakumeen taldea?

M.A.: Belaunaldi aldaketa gertatu da eta oso jokalaria gazteak daude. Gogotsu daude eta badago potentziala. Pazientzia behar da, apurka elkar ezagutzen eta taldeko dinamiketara egokitzen joan daitezten. Talde ona dagoela esango nuke.

O.G.: Ados nago Mirarik dioenaz. Taldean jende gaztea sartzen dabil. Normalean, beteranoak ez dira multzoka erretiratzeko, bana-ka edo binaka joaten dira, baina aurten asko joan gara batera. Beraz, orain taldea egitea tokatzen da berriro: elkar ezagutu, batak bestearen indarguneak eta ahulguneak identifikatu... Prozesu horrek denbora bat eskatzen du.

Olazar Txapelketa | Zuzenean anboto.org

Azaroaren 16an 21:30ean
ZALDIBARKO OLAZAR PILOTALEKUAN

LAU ETA ERDIAN: Apezetxea-Lizeaga

BINAKA: Zubizarreta-Lizeaga/ Etxaniz-Balardi



Binakako Pilota Txapelketa Nagusiko lau jaialdi Zornotzan jokatu dira

Abenduaren 1ean, urtarrilaren 5ean, otsailaren 2an eta otsailaren 23an dira jaialdiak



Zornotzako Udaleko eta Baiko enpresako ordezkariak, eta pilotari profesionalak, atzo, Zelaieta Zentroan eginiko aurkezpenean.

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzak Binakako Txapelketa Nagusiko lau jaialdi hartuko ditu abenduan hasi eta otsailera bitarteko lau barikutan. Pilota Pro Fest izeneko jaialdiak abenduaren 1ean, urtarrilaren 5ean, otsailaren 2an eta otsailaren 23an izango dira, 22:15ean. Gaur egun egiten den moduan, jaialdiak musikaz girotuko dituzte, jokoak antolatuko dituzte eta kirol materiala zozkatuko dute.

"Horrelako ekitaldiak funtsezkoak dira euskal pilotaren sena herritarren artean eta gure kulturaren bizirik mantentzeko", adierazi

Sarrerak Interneten bitartez edo Urtza eta Venecia tabernetan eskuratu daitezke

zuen Ainhoa Salterain alkateak jaialdien aurkezpenean. Jaialdi bakoitzean partidu bi jokatu dira. Bigarren partiduak Promozio Mailako txapelketakoak izango dira. "Jaialdi guztietan ez bada, gehienetan Aimar Morgaetxebarria bertan egongo da", adierazi zuen Baiko enpresako Unai Iglesiasen jaialdiak aurkezteko ekitaldian. Pilotari zor-

notzarrak Promozio Mailako txapelketa jokatu zuen iaz, bere ibilbidean lehenengoz, eta txapelketa nagusiko partidu batean ere aritu zen, Mariezkurrena ordezkaturik.

Sarrerak

Sarrerak entradasfronton.com web orrialdean eskuragarri daude jandak. Zornotzako Urtza Taberna eta Venecia Kafetegian ere erosi daitezke. Abenduaren 1ean, barikuan, txarteldegia zabalik egongo da Zornotzako Zelaieta Zentroan, 20:00etan. Jaialdi baterako sarrera 20 euro da eta lau jaialdietarako bonua, 90 euro.

Zornotza STk gorantz egin gura du azken sailkatuari irabazita

Teknei Zornotza sailkapenaren erdian kokatuta dagoela joango da Algeciras azken sailkatuaren kantzara



Zornotza Saskibakoi Taldea joan zen asteburuan Larrean lorturiko garaipena ospatzen.

SASKIBALOA • J.D.

Teknei Zornotzak gorantz begira jartzeko aukera du zapatu honetan, Damex Udea Algeciras taldearen kantzara egingo duen bisitan. Une honetan Zilarrezko Ligako sailkapenaren erdian dago, hiruna garaipen eta porrotekin, eta Algecirasen kontrako norgehiagokak abagune aproposa dirudi balantza garaipenen aldera eramateko, talde andaluziarrak galdu egin dituelako orain arte jokaturiko sei partiduak.

Gainera, zornotzarrak sasoi onean daude. Joan zen asteburuan, sailkapeneko hirugarrena hartu zuten mendean Larrean,

Starlabs Moron. Etxeko taldeak lehenengo erdian bideratu zuen partidua. Lehenengo laurden bietan, 54 puntu sartu zituzten,

Azken garaipena lehenengo zatian bideratu zuten, laurden bitan 54 puntu sartuta

euretariko 32 bigarrenen. Bigarren zatiko laurdenak talde sevillarraren aldekoak izan ziren, baina ez zuten partidua galtzeko arriskurik izan: 83-72.

Jokaldia

Munduko Koparen ajeak

Amaitu berria den Munduko Errugbi Kopak une gozo ugari eta gogoan izateko irudi anitz utzi dizkigu. Alde batetik, frantziarrek erakutsi digute gauzak patxadaz egiteko gaitasuna dutela. Antolakuntza txukuna, zelaiak bete beterik partida gehienetan.

Bestetik, zale eta ikusleen jarrera azpimarratu beharko genuke. Ez da isturik egon, zelai barruan zein kanpoan adiskidetasuna eta giro ona nagusi izan dira; ohikoa izan da zaleak nahasturik ikustea elkarrizketa lasaieran murgildurik, eta askotan abesten ere.

Nire aburuz, txapelketa honek hego hemisferioko taldeen nagusitasuna islatu du. Txapelkun bi izan dira nire ustetan. Hegoafrikak Munduko Kopa irabazi du, talde sendo eta gogorra



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

Txapelketa honek hego hemisferioko taldeen nagusitasuna islatu du Txapelkun bi izan dira

Hegoafrikak Kopa irabazi du, talde sendoa izateaz gainera, txapelketa izateko zortea ere izan duelako

izateaz gainera, txapelketa izateko zortea ere izan duelako. Zergatik diot hau? Frantzia, Ingalaterra eta Zeelanda Berria garaitzeko kapaz izan dira, eta gutxi balitz partida guztietan puntu bakarrek alde izan dute markagailuan. Ez da erraza izaten kontuak hain estu doazenean txanpona zure alde erortzea

beti, baina hegoafrikarrek alde izan dute haizea. Bigarren txapelketa, nahiz eta finalean puntu bakar bategatik galdu, Zeelanda Berria izan dela uste dut. Ez ziren faborito argiak baina erakutsitako jokoa une askotan zoragarria izan da, mele zein lerroan aritu diren jokalariek guztiek beti aurrera begira jokatu dute, lagunak beti bilatu nahian eta zirrikituren bat topatuz gero marka lerroaren bila abiatu dira. Lastima bi irabazle egon ezin diren. Belaunaldi bateko jokalariek handiak badoaz, besteak beste Sam Whitelock, Aaron Smith, Dana Coles, Brodie Retallick...

Gero eta gutxiago falta da hurrengo Munduko Koparako, Australian jokatu dena 2027. urtean. Lau urte ditugu aurretik aurretzen joateko. Ikuskizuna itzela izango da eta bertan izateko gogorik ez zaigu falta errugbi zaleei.



Durango Sariak 2023

Joan zen barikuan, Durangoko Udalak Durango Sariak banatu zituen San Agustin kultur gunean. Hauek izan ziren irabazleak:

- **Durango Kirol Elkartea:** Durango Rugby Taldea
- **Kirolaria:** Deniba Konare judoka.
- **Durangoko Kultur Elkartea:** Kriskitin Dantza Taldea.
- **Kultur arloko pertsona esanguratsua:** Nerea Mujika, Gerediaga Elkarteko lehendakaria.
- **Gizarte arloko elkarte:** JAED
- **Sari berezia:** Kortabitarte anaiak.
- **Kultura Arloa:** Juan Antonio Aroma, txistularia.
- **Kirol arloa:** Jone Aizpurua, triatleta.





ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



DURANGO
131 m². Eguzkitsua. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea terrazarekin. Garaje itxia eta ganbara.
310.000 €



IURRETA
117 m². 4 logela eta 2 komun. 150 m²-ko terraza. Erabilera eksklusiboa. Trastelekua eta garajea aukeran.
220.000€ C.E.E= E



ABADIÑO
94 m². 2 logela eta 2 komun. 150m²-ko terraza. Trastelekua eta garajea aukeran.
259.000€ C.E.E= E



ANTSO ESTEGIZ
85 m². 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela.
168.000€ C.E.E= E



DURANGO
Apartamentu eguzkitsua. Erdi berria. Sukaldea eta egongela balkoiarekin. Bizitzan sartzeko moduan.
C.E.E= F



F. J. ZUMARRAGA
111 m². 4 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Balkoia. Igogailu berria.
180.000€ C.E.E= F

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Erretentxu. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. balkoia.

DURANGO: Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela eta despentsa. Igogailua. Berriztatze. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Askatasun etorbidea. 3 logela, sukaldea, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

ABADIÑO: Etxeazpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeitxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatze. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatze. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
72 m²
2 logela
ZEHARKALEA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, komuna eta despentsa. Ezin hobea. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoalde) Erdiguan kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuek.
150.000 € C.E.E: E



DURANGO
72 m²
4 logela
ANTSO ESTEGIZ: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea) Egoera onean. Leku onean kokatua, erdigunetik gertu. Bizitzan sartzeko moduan.
168.000 € C.E.E: E



DURANGO
68,80 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Behoko solairua (33,73 m²). Egongela handia, sukalde jantzia eta balkoia. Lehenengo solairua (25,07 m²), 2 logela, komuna eta balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Oso argitsua. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuek. Egoera onean. Ganbara eta garajea.
275.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO
92 m²
3 logela
LEHENDAKARI AGIRRE: 2 hall, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua (zonalde berdeak eta zerbitzuek) Egoera onean. Garajea eta ganbara.
299.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO
86 m²
3 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: (2012. urtean eraikia) Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Etxe erdiak kanpora ematen du (ipar-hegoa) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuek. 22,4 m²-ko garajea eta 8 m²-ko ganbara. Bizitzan sartzeko moduan.
315.000 € C.E.E: Bidean



MATIENA
ERAIKUNTZA BERRIA: 91,05 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatze.
266.450 €-tik aurrera

//DURANGO

ANTSO EZTEGIZ KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € ORAIN 178.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **LEHEN 300.000€ ORAIN 280.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Igogailua onartuta. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//BERRIZ
MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze baserria lurzorugaz. **280.000 €**

//GARAI
MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA
DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **LEHEN 153.000 € ORAIN 146.000€/ E.E.Z=E**

//IZURTZA
ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 / E.E.Z=E**

//OTXANDIO
ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR
BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO
Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//LOKALAK SALGAI / ALOKATZEKO
Informazio gehiago bulegoan.

//ETXEBIZITZAK ALOKAGAI
Informazio gehiago bulegoan.

Botikak

BARIKUA, 10 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A.ABASOLO 2 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 11 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A.ABASOLO 2 - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONDO 22. - DURANGO

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

SANTAMARIA,
ERREKAKALE 6. - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

DOMEKA, 12 · 09:00-09:00

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

ASTELEHENA, 13 · 09:00-09:00

DE DIEGO,
INTXAURRONDO 22. - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 14 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 15 09:00-09:00

MUGICA,
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 16 · 09:00-09:00

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENAKO 14:00AKARTEKO EPEA

Zorionak guztioi! **GOZATU GOZOTEGIA**

Zorionak, **Jurgi (555. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Joan zen barikuan, Frai Juan Zumarraga institutuko ikasle talde batek ANBOTO bisitatu zuen. Biba zuek!



Azaroaren 10ean 6 urte. Zorionak, **Lorea**, etxeko danon partez!



Zorionak, **Magali!** 11 urte egin zenituen atzo. Musu pilo bat etxekoen partez! Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Garazi!** 12 urte azaroaren 7an. Etxekuok primeran pasau gendun zugaz batera. Zu bai zu! Hurrengoan, ekarri argazkiko zure laguntxo barri hori San Mamesera goiezenerako!



Azaroaren 15ean **Iraiak** 4 urte egingo ditu. Musu handi-handi bat zure familiaren partez. Asko maite zaitugu. Zorionak, amore! Ondo pasa!



Azaroaren 10ean gure etxeko txikiak 6 urte egiten ditu. Zorionak, **Aner!** Jarraitu orain bezain dibertigarri eta alai. Etxeko guztien partez, musu handi bat.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 11° / 20° ☁

ASTELEHENA ↓ 14° / 23° ☁

EGUAZTENA ↓ 11° / 18° ☁

DOMEKA ↓ 12° / 21° ☁

MARTITZENA ↓ 14° / 23° ☁

EGUENA ↓ 8° / 16° ☁

Eskelak



Bixente Narbaiza Gisasola

2023ko azaroaren 8an hil zen,
74 urte zituela

*Ondradua, legezkoa,
naturala, berezkoa,....
Dagoneko faltan igarten dogun
haize ufada freskoa.*

*Gidari zuzena zinez,
beti hazia ereinez.
Hodeien artean hara ta hona
segi bidea eginez.*



Lurretako Kofradiak

BIZKAIARI BEGIRA Artearen ibilbidea

ERAKUSKETA

Azaroak 13-20

Askondon

BISITA GIDATUAK

Azaroak 14-17

09:00-11:00 Juan Orbiogoitia institutua

Azaroak 18

12:00 Gaztelaniaz 13:00 Euskaraz

Azaroak 19

12:00 Gaztelaniaz 13:00 Euskaraz

Izen-ematea

(Azaroak 12rarte)



946200342 kultur-etxea@iurreta.eus

Arte Ederren Bilboko Museoa

bbkE

Iurreta
Euzko Udala

"Egunero lau bat ordu ematen ditut akrobaziak egiten"

Sergi Sarmientok Espainiako Parkour Txapelketan parte hartu du, maila absolutuan lehenengoz; akrobazia eskolak ematen ditu Zelaieta zentroan, martitzenetan



Sergi Sarmiento Agirregoikoa

Parkourra egiten du
ZORNOTZA | 2005

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Parkourrak, eta akrobaziek batez ere, pasioa sortzen diote Sergi Sarmientori. Orain zazpi urte murgildu zen kirol honetan, eta gaur egun ezinbestekoa du bere bizitzan. Probatzera animatu gura du jendea, eta prest dago erakusteko (@serflips).

Noiz eta zelan hasi zinen parkourra praktikatzeko?

DBHn izan nuen lehenengo hartu-eman parkourragaz, gorputz hezkuntza saioetan. Orduan ezagutu nuen baita Madrilgo What Parkour taldea ere, eta haien bideoak ikusiz neure kabuz praktikatzeko hasi nintzen. Akrobaziekin aurre-

tik hasi nintzen. 10 urte betetzean amamak oparituriko ohe elastikoan hasi nintzen lehenengo akrobaziak egiten.

Diziplina desberdin bi dira.

Akrobaziak estilo librean aritzeko dira, batez ere. Bakoitzak gura duena adierazi dezake. Parkourrean, ostera, estilo librea erabili daitezkeen arren, helburua bat da: puntu batetik bestera heltzea, bidean dauden trabak modurik errazenean eta efizienteenean saihestuz. Adibidez, horma baten gainetik salto egitea, 'Katua' edo 'Hesipasa' eginez. **Biak uztartzen dituzu.**

Gurago ditut akrobaziak, igual hobeto moldatzen naizelako. Par-

kourra ere egiten dut, baina entrenamendu ordurik gehienak akrobaziak egiteko erabiltzen ditut. Egunero lau bat ordu ematen ditut horretan.

10 urte betetzean amamak oparituriko ohe elastikoan hasi nintzen lehenengo akrobaziak egiten

laz, 17 urtetik beherakoen mailan Espainiako Parkour Txapelketa izan zinen. Eta, aurrean, maila absolutuan ahalgindu zara. Zelan joan da?

19. postua lortu nuen eta ez nintzen sailkatu. Baina oso esperientzia ona izan da, asko entrenatu nintzen eta pozik nago lorturikoagaz.

Zein da orain erronka?

Honetaz bizi gura nuke. Hori dut epe luzerako erronka. Batxillergoa amaitzean, Bartzelonara joango naiz zinema-espezialista edo aktoreen arrisku-ordezko izateko ikasketak egitera. Aktoreek egiten ez dituzten jauziak, borroka eszenak edo eszena arriskutsuak egiteko trebatuko naiz. Eta txapelketekin jarraituko dut, jakina!

Edonork egin ditzake parkourra eta akrobaziak? Zer behar da?

Fisikoki ondo egotea garrantzitsua da. Baina motrizitate ona duen edonork egin dezake. Gogoia eta parkour mugimenduak egiteko sormena behar dira. Edozein kirolekin lez, luzapenak ere garrantzitsuak dira. Akrobazien kasuan,

Bartzelonara joango naiz, zinema espezialista edo aktoreen arrisku-ordezko izateko ikasketak egitera

arrisku-salto oinarrikoekin hastea gomendatzen dut. Horiek menperatuta, aldaerekin hasi gaitezke. **Jausteko beldurra kendu beharko da, ezta? Izan duzu sustorik?**

Beldurra kentzea garrantzitsua da, bai. Akrobazietan, jausteko moduak praktikatzeko ditugu, mina saihesteko edo gutxitzeko. Kirol arrikutsua da, baina menperatuz gero arriskua gutxitu egin daiteke. Behin, atzerako arrisku-salto bikoitza praktikatzeko ari nitzela, ez nituen buelta biak osorik egin eta lepoz jauzi nintzen.

Baduzu erreferenterik?

Asko izan ditut. Dena dela, neure burua ikusita, egin dudana bidea, konturatu naiz hobetu egin dudala, aurrera egin dudala. Horrek animatzen nau jarraitzea. Gorputzak gehiago ezin arte jarraituko dut.

Lortu gura duzun jauzi hori?

Lurrean nagoela arrisku-salto bikoitza egitea atzeraka, eta zutik jaustea.

Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea/ Jubilatua



Agur, aita

Eibarren Bigarren Errepublika aldarrikatu zen egunean jaio zinen, 1914ko apirilaren 14an. Lau urtetara zure aita gerra zibilean hil zuten eta beste askoren lez oraindik ez da azaldu bere gorpua. Handik urte bira baserria erre eta ezer gabe geratu zinen eta hortik aurrera egoerari buelta emateko lana eta lana izan zen zure egunerokoa.

Gorlizeko sanatorioan egon nintzen 11 hilabetetan, beste batzuekin batera, taxia hartu eta domekero etortzen zinen nirekin eguna pasatzera.

Zure lanak uzten zizkizun tarte txikitetan, gaez, eskolara joaten zinen. Urte askotan Eloreko kooperatiba baten aritu zinen eta hau desagertu zenean, 58 urterekin, prejubilatua zinen eta buru-belarri baserriari heldu zenion.

Baserrian beti izan dituzu behiak eta inguruan partoren bat zegoenean zure bila etortzen ziren txahalak munduratzeko, oso esku trebeak izan baitituzu edo norbaitek behiren bat erosi nahi bazuen zu izaten zinen aholkularia.

Azken egunera arte izugarriko memoria izan duzu, zure burua entziklopedia handia izan da eta asko etorri izan dira zuek informazioaren bila.

Zure zaletasunak ere bazenituen eta doinua entzuteaz batera zure hankak erritmoaren atzean joaten zitzaizkizun. Oso dantzari ona. Pelota ere oso gustukoa izan duzu eta Euskal Telebistako partidu bat ere ez zenuen galtzen, Titin eta Altuna izan dira zure begikoak. Herri kirolak ere maite izan dituzu.

Zu izan zaren moduan joan zara gure artetik, egun bitan, lasai-lasai inor molestatu gabe lo geratu zinen eta ziur nago zauden tokitik zaudela gu zaintzen jarraituko duzula.

SAN ROKE BARRIA DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka Gimnasioa

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

sukia 946 46 20 41
Zure etxean zaude. Estás en tu casa www.sukia.com

KALERATZE prezio bereziak